

hh
hik hasi

Euskarako eskolak jomugan
Emakume zientzialariak ikastetxeetan
Eskoletako urmaelak: laborategi naturalak
Irakasle lanbiderako sarbidea
Elikadura osasuntsua
Tutoretza Bigarren Hezkuntzan
Garazi Ruiz de Sabando

60
7
2

A portrait of Garazi Ruiz de Sabando, an older woman with short grey hair, wearing glasses and a dark jacket with a colorful patterned scarf. She is smiling slightly and looking towards the camera. In the background, a computer monitor is visible.

“Ikasleek ikastea ez dago metodoen baitan, ebaluazioaren arabera baizik”

NEUS SANMARTÍ

ARIAN

IRAKURGAI

MAILAKATUAK A1, A2 eta B1

+ AUDIOLIBURUA
+ ARIKETAK



MALETA BAT IGOGAILUAN
Andoni Tolosa
Mattin



ELURRAREN PROMESA
Miren Agur meabe
Inaki landa



AURKIBIDEA

GAIA / 8

EUSKARAKO ESKOLAK JOMUGAN

Kike Amonarrizek Euskarabentura 2022 espedizioa partaideei egin dien inkestaren emaitza argia da: galdera erantzun duten % 85ek uste dute gaur egun euskara irakasteko erabiltzen den metodologia ez dela egokia. Erabiltzen den metodologia euskararen kontrako jarrerak sorrarazten dituela eta euskararen erabilera ez duela sustatzen uste dute.

ELKARRIZKETA / 14

NEUS SANMARTÍ

Hik Hasiren 'Lehen Hezkuntza eraldatzen' graduondoko formazioan izan berri da Neus Sanmartí ebaluazio hezitzailean aditua den irakasle katalana. Urte askotako esperientzia bizkarrean hartuta, argi mintzatzen da: eraldaketa guztien muinean ebaluazioa dago, ebaluazioa aldatzeak dakartza gainerako aldaketa guztiak.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostitxu, Olatz Lasagabaster.

Erredakzio batzordea: Mikel Agirrezabala, Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe

Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx eta Xabier Tapia.
Administrazioa: Uxue Ugartemendia.
Azaleko argazkia: Hik Hasi
Diseinua: Grafik.
Maketazioa: Xangorin.
Inprimategia: ANTZA S.A.L
Hezkuntza Sailak onetsia (2023-2-21).
Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko edukiak baliatu eta zabaldu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta soilik baldintza beretan eginez gero. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiek.

5 EDITORIALA

Heriotzak daramana eta dakarrena

8 GAI NAGUSIA

Euskarako eskolak jomugan

14 ELKARRIZKETA NEUS SANMARTÍ

"Ikaskuntza ikasleen esku uztea onartuta dago, baina ebaluazioa ez"

20 ESPERIENTZIAK I

Zientzia nesken kontua ere badela erakutsi dute

22 ESPERIENTZIAK II

Nafarroako D ereduko ikasle gehienek euskarazko B2 maila lortzen dute

24 ESPERIENTZIAK III

Eskoletako urmaelak

28 EKARPENAK I

Irakasleen lanbiderako sarbidearen diagnostikoa (I)

32 EKARPENAK II

Segregazioari aurre egiteko, matrikulazio orekatuagoa

34 AHALDUNTZE ESKOLA

Denetik, baina neurrian

36 GALDEIDAZU

Zein da tutoretza saioen funtsa Bigarren Hezkuntzan?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

Basondo

42 ATZEKO ATETIK

Garazi Ruiz de Sabando

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA SAILA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HEZKUNTZA POLITIKA SAILA

Hezkuntza Sailak eta Kultura eta Hezkuntza Politika Sailak (Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



zerbitzua eta lana euskaraz



Heriotzak daramana eta dakarrena

editoriala

OTSAILAREN AMAIERAN URI RUIZ
BIKANDI IRASKALEA HIL DA. EUSKAL
GIZARTEAK HAREN HUTSUNEA
NABARITUKO DU. BIHARAMUNEAN
DONIBANE LOHIZUNEKO HILKETAK
ASTINDU DU HEZKUNTZA KOMUNITATEA.



Uri Ruiz Bikandi irakasle, ikerlari, hezitzaile eta idazle durangarraren heriotzaren berri izan dugu otsailaren amaieran. Bigarren hizkuntzaren didaktikaren alorrean irakaspen asko utzi ditu; batzuk oraindik ere oinarritzak izaten jarraitzen duen liburuan bilduak (*Didáctica de la segunda lengua en Educación Infantil y Primaria*) eta beste asko hainbat eta hainbat irakasleri zuzenean utziak, bai Ruiz Bikan-diren ikasle izan zirelako edo baita haurrekin ari zirenean ere haren bidelaguntza izan zutelako. Pasa diren urte hauetan denetan gidari argia eta nekaezina izan da bigarren hizkuntzaren irakaskuntzan murgildu diren guztientzat eta bigarren hizkuntzaren jabeakuntzan sakondu nahi izan dutenentzat. Bihoakio gure aitortza lerro hauen bidez, eta har dezagun hark utzi duen irakaspenera eguneroko erreminta gisa, oraindik ere baliagarria baita.

Bigarren heriotzaren berri Donibane Lohizunetik iritsi zaigu; heriotza ez, hilketa, zuzenago esanda. 16 urteko ikasle batek 52 urteko irakasle bat, Agnes Lassalle, hil du labankadaz. Izua. Horixe da inguruan eragin duena; inguru hurbilean, oso hurbilean, etxe ondoan, oso gertu.

Hezkuntza komunitate osoa ukitu duen gertakaria izan da, eta denengan eragin du izua. Anormaltasunaren barruan kokatu behar den hilketa da eta geruza asko dituen. Ertz ugari dituela ere esan daiteke, baina kasu honetan egokiagoa da geruza, ertzean ez baita inor geratu, denak barruan baizik: ikasleak, irakasleak, familiak, ikastetxeak eta hezkuntza komunitate osoa.

Ez da erraza gertatu denaz hitz egitea: emozio ugari, muturreko egoerak, antsietatea, trauma osteko estresa, erantzunik gabeko galderak... Horregatik diote Psikologian adituek azalpenak behar dituztela gertaeraren lekukoek, ikasleek eta irakasleek, denen gurasoek eta familiekin, ikastetxearen inguruko pertsonekin eta hezkuntza komunitateko kideekin. Azalpenak lasaitzen laguntzen du/die/digu. Hasteko, laguntza psikologikoa eskaintzea garrantzitsua da, eta baita gertaera ongi kokatzea ere: alegia, gertatu dena ez dela normala, ezohiko faktore batzuk elkartu direlako gertatu dela. Eta gero, ulermena eta hitz egitea, geruza guztietan eta guztiekin. Prebentziorako bidea arazoak mahai gainean jartzea eta mintzatzea bada, hezkuntzan ari garenok gaian sakondu behar dugu, ezbairik gabe, ofizioak hala eskatzen digulako.

“Batzuek ‘herriarena’ diote, beste batzuek ‘publikoa’. Jakin al daiteke non dagoen aldea? Askotan bezala, ez al gara ari funtsezko adostasunak isiltzen, ertzeko mugak aireatzen ditugun bitartean?”

Aitziber Muger

HILEKO IRUDIA





HILKETA DONIBANE LOHIZUNeko LIZEO BATEAN

Donibane Lohizuneko (Lapurdi) Tomas Akinokoa lizeoko 16 urteko ikasle batek 52 urteko irakasle bat, Agnes Lassalle, hil zuen labankadaz otsailaren 22an. Gaztelaniako eskolak ematen ari zela gertatu zen eraso. Ikaslea eserlekutik altxatu, bizkar zorrotik labana atera, gelako atea blokeatu eta irakaslearengana gerturatu eta labana sartu zion, lekukoen arabera.

Ikaslea atxilotu egin zuten, erailketa egotzita. Instrukzio epailearen aitzinean deklaratu ostean, prokuradoreak adierazi zuen gaztea egin duenagatik "shock egoeran" dagoela eta "min egitera bultzatzen duen ahots egozentriko eta manipulatzailerik" bultzatu zuela egin zuena egitera. Nahasmenduak eta gorabeherak izan arren, buruko gaixotasunik ez duela erran du prokuradoreak, eta beraz, ikerketa judiziala abiatu dute hilketa prestatuaren akusazioarekin, eta gaztea adingabekoen presondegian sartu dute behin-behinean.

Lizeoko ikasleak eta langileak laguntza psikologikoa jasotzen ari dira.

Arg: Gaizka Iroz/AFP/Getty Images

Donibane Lohizunen,
2023ko otsailaren 22an



Egokia al da euskara irakasteko erabiltzen den metodologia? Euskarako eskoletan gustura sentitzen al dira ikasleak? Ikasgai erakargarria al da Euskara? Galdera horiei guztiei, ñabardurak ñabardura, hitz bakarrarekin erantzun diete 2022. urteko Euskarabentura espedizioan parte hartu zuten Euskal Herri osoko ikasleek: ez. Kike Amonarrizek egindako inkesta batek utzitako emaitza nagusia horixe da. Euskarabenturan parte hartu zuten gazteei egindako inkestak datu argigarriak utzi ditu eta horiei helduta artikulu interesgarria idatzi du Amonarrizek: 'Euskara irakasteko metodologia Euskarabenturako gazteen begiradapean'. Ikasleen % 85ek diote euskara irakasteko erabiltzen den metodologia ez dela egokia. Zaharkitua dagoela uste dute eta, besteak beste, gramatikari toki handiegia eskaintzen zaiola eta ahozkotasunari, gutxiegi. Ikasleek ebaluazioa egin dute, orain zer eta nola aldatu behar den hausnartzeko unea da.

GAIA: EUSKARAKO ESKOLAK JOMUGAN

Egokia al da metodologia?

Kike Amonarriz Euskaltzaleen Topaguneko lehendakariak Euskarabenturako partaideei Tolosan eskaini zien hitzaldia izan zen *Euskara irakasteko metodologia Euskarabenturako gazteen begiradapean* izeneko artikuluaaren abiapuntua. “Zein dira zuen ikastetxeetan lehentasunez landu beharko liratekeen esparruak ikasleek euskararen erabilera sustatzeko?” galdera luzatu zuen, eta harrিতuta gelditu zen jaso zituen erantzunekin. Zortzi lehentasun planteatu zizkien haien artean aukera zezaten:

1. Kultur kontsumoa: musika, liburuak, telebista...
2. Euskara irakasteko erabiltzen den metodologia.
3. Ikasleen motibazioa eta soziolinguistikari buruzko ezagutza.
4. Irakasleen jarrera eta hizkuntza portaerak.
5. Eskola orduz kanpoko jarduerak.
6. Gurasoak eta familiak.
7. Erabilera planak eskoletan.
8. Eskoletako zuzendaritzen eta arduradunen inplikazioa.

Ikasleen lehen aukera kultur kontsumoa izan zen, baina bigarrenarekin harritu zen Amonarriz, euskara irakasteko metodologiari buruzkoarekin: “Izaro Arruti Euskarabenturako orduko euskara arduradunari galdetu nion ea aukerarik egongo ote litzatekeen ikasleei berriro galdetzeko eta sakontzeko, eta baietz esan zidan. Galdekizun txiki bat prestatu nuen eta Euskarabenturan parte hartzen ari zirela erantzun zuten. Nongoak ziren eta zer ikasmailatan zeuden (DBHko 4. maila/Lizeoko 2. maila edo Batxilergoko 1. maila/Lizeoko 1. maila) zehazteko eskatu genien, eta horrekin batera galdera luzatu: “Uste duzu ikastetxean euskara irakasteko erabiltzen den metodologia ez dela egokia euskara sustatzeko? Zergatik? Zer aldatu beharko litzateke?”. Horren emaitzak bilduta osatu du artikulua Amonarrizek.

Erantzunak oso esanguratsuak dira: “Kontuan hartu behar dugu Euskarabenturan parte hartzen duten ikasleak profil jakin batekoak direla. Euskal Herri osokoak dira, ikuspegi nazional osoa dago, ikastetxe mota guztietakoak eta jatorri soziolinguistiko desberdinetakoak,

GAIA: EUSKARAKO ESKOLAK JOMUGAN EGOKIA AL DA METODOLOGIA?



baina esan genezake adin tarte horretako gazteen multzorik euskaltzaleenaren lagina direla. Azken egunean jasotako erantzunak dira eta Euskabenturan hainbat gairen gaineko lanketa egiten dute, euskararen gaineko hausnarketa sakona egiten dute eta ikasle multzorik kontzienteenak hori erantzuten baldin badu, pista oso indartsua dugu”, dio Amonarrizek.

Zer aldatu beharko litzateke gazteen iritziz?

Bi gauza oso garbi esaten dituzte gazteek: lehena, erabiltzen den metodologia ez dela erakargarria. Are gehiago, kasu batzuetan euskararen kontrako jarrerak sorrarazten dituela. Eta bigarrena: metodologia horren eraginez, ez dela euskararen erabilera bultzatzen.

Ahazkotasuna landu beharra ikusten dute, ikasgelan lantzen den euskara errealitateetik urrun dagoela uste dute eta hizkera kolokiala faltan botatzen dute. Amo-

narrizek zehaztu du ideia hori: “Kontuan hartu behar dugu Euskarabenturako partaide askok euskararekin harreman txikia dutela eta Euskarabenturan erregistro eta hizkera diferenteak dituen beste jende asko dagoela deskubritzen dutela. Ezagutzen ez dituzten erregistroak ezagutu nahi dituztela aipatzen dute: euskalkiak, hitanoa, euskara kolokiala... Euskara guztiak eta autoestimua linguistikoa landu behar ditugu ikasleekin. Eta gertuko erreferenteak eskaini behar dizkiegu bai literaturan, bai musikan, bai ikus-entzunezkoetan...”.

Klaseak teorikoak direlako kexatzen dira ikasleak, beti gramatikarekin eta zuzentasunarekin atzera eta aurrera aritzen direla diote: “Eta mamu baten antzera agertzen dira aditz taulak. Aditzak ikasten dituztela diote baina gero ez dituztela erdiak ere erabiltzen. Kontuan hartu behar da, gainera, klaseen helburua ez dela euskaraz egitea edo euskaraz gozatzea, azterketa gainditzea baizik. Uste dut horren ondorioz ez dela erabilera sustatzen eta askok aipatzen dute erabiltzen den metodologia

“Ezin dugu euskara irakatsi Ciudad Realen gaztelania edo Lyon-en frantsesa irakasten den moduan, hizkuntzaren eta komunitatearen beharrak ezberdinak direlako”

Kike Amonarriz, Euskaltzaleen Topaguneko lehendakaria

GAIA: EUSKARAKO ESKOLAK JOMUGAN

euskaraz hitz egiteko aukera gutxi ematen diela. Batzuek diote jarrera ezkorra hartzen dutela euskararekiko. Ikasle askok euskara aspergarri eta “ez guay” modura ikustea dakar horrek guztiak”, dio Amonarrizek. Eta jarraitu du: “Ikasle horietako batzuek soilik ikastetxean dute kontaktua euskararekin. Guk ezin dugu euskara irakatsi Ciudad Realen gaztelania edo Lyonen frantse- sa irakasten den moduan, hizkuntzaren eta hizkuntza komunitatearen beharrak desberdinak direlako. Hizkera kolokiala, esaterako, Ciudad Realen kalean lantzen da, baina hemen kalean lantzen ez bada, eskolan lanketa egin beharko dugu. Gure behar propioak ditugu eta erabiltzen den metodologia ez die behar horiei erantzuten”.

Euskarabenturako ikasleen % 85ek diote euskara irakas- teko erabiltzen den metodologia ez dela egokia, baina % 15ek ontzat jotzen dute. Zer arrazoi ematen dituzte ikasleek metodologia ona dela esateko orduan? Bi arrazoi nabarmentzen dira: irakasleen jarrera egokia eta erabiltzen den metodologia komunikatiboa dela.

Badute proposamenik

Gazteak ez dira mugatu metodologia egokia ez dela esatera. Hainbat proposamen ere egin dituzte: klase praktikoagoak eta dinamikoagoak nahi dituzte. Hitz egin nahi dute, erabili, gozatu, jolastu... Hizkuntzarekin bizi nahi dute. Askok esaten dute euskara ikasten dutela, baina testuingururik gabe; euskararen historia ezagutu nahi dute, zer gertatu den euskararekin... Kontzientzia linguistikoa eta kontzientzia soziolinguistikoa lantzea- ren garrantzia ere askok aipatu dute.

“Ikusten da goi mailatan oraindik oso eskema zaha- rretan gaudela. Horrek zerikusia du curriculumarekin, azterketekin... alderdi askorekin. Baina mugak zein diren jakin arren, aurrerapausoak emateko premia larria dugu”, dio Amonarrizek eta amaitzeko, ikasleen alda- rrian jarri du azpimarra: “Euskaraz bizi nahi dugu, gure apustua hori da baina zerbait gaizki egiten ari zarete eta mesedez aldatu. Hori da esaten ari direna. Mezua oso indartsua da”.

Gazteen esanak

Erabiltzen den metodologia egoki ikusten dutenak:

- “Irakasleak euskara modu dinamikoan irakasten du, ez du guztia gramatikaren arauetara mugatzen”.
- “Euskal literatura tertulien bidez lantzen dugu eta horrek euskararen erabilera sustatzen du. Bestetik, aldizkariak irakurtzen ditugu eta bertsoak entzuten ditugu noizean behin”.

Erabiltzen den metodologia egoki ikusten ez dutenak:

- “Euskara soilik modu gramatikalean irakasten da, ez euskaraz hitz egiteko gogoa pizteko”.
- “Azterketak egiteko soilik prestatzen gaituzte. Tituluak lortzeko”.
- “Jendeak nazka hartzen dio euskarari”.
- “Euskara arlo formalera bakartu da eta testuinguru gabe utzi da (...). Gazte asko aurkitzen gara gaur egungo eduki kulturalen erreferentzia literarioak, artistikoak eta historikoak ulertu gabe, ezin baititugu lotu klaseetako edukiak errealitatearekin”.
- “Gauza oso konplexuak, adibidez, baldintza, ahalera eta horrelakoak ikastera behartzen gaituzte, baina ez dira konturatzen askotan ez garela gai ikaskideen artean euskaraz hizketa sinple bat izateko ere”.

* Artikulua osorik irakur daiteke www.hikhasi.eus webgunean.

“Euskaraz bizi nahi dugu, gure apustua hori da, baina zerbait gaizki egiten ari zarete eta mesedez aldatu. Hori da esaten ari direna. Mezua oso indartsua da”

Kike Amonarriz, Euskaltzaleen Topaguneko lehendakaria

Ikasleen astinduaren aurrean, zer?

Euskara irakasteko erabiltzen den metodologiak ez luke gaindituko Euskarabenturan parte hartu zuten ikasleek jarritako azterketa. Haien iritzia argia da, baina nola ikusten dute gaia irakasleek? Ainhoa Ezeiza Hizkuntzaren eta Literaturaren didaktika Saileko irakaslea da EHUko Gasteizko Hezkuntza eta Kirol fakultatean. Kike Amonarrizek egindako inkestaren emaitzak ikusita, ikasleek irakasleei astindua eman dietela dio eta pentsaraztera bultzatu dituztela. Euskararen didaktikak dituen zailtasunei eta aukerei buruz mintzatu da Ezeiza.

Idea jakin batetik abiatu da Ainhoa Ezeiza, DBHn eskolak ematea ez dela batere erraza: “Ikasleak aztoratuta egoten dira eta batzuetan gauza onak egin arren, itxuragatik eta nagusiekiko urruntasuna markatu nahi dutelako gustuko ez dituztela esaten dute”. Hori oinarri gisa hartuta, aldatu beharreko hiru arazo nabarmen daudela dio irakasleak:

1. Esaldiaren gramatikaren nagusitasuna. Hizkuntzen didaktikak duen arazoa da. 70eko hamarkadan zientifikoki frogatu zen hori ez zela hizkuntzak irakasteko bidea. Gutxienez testuaren gramatikara pasa beharko genukeela dio Ezeizak.
2. Idatzizkoaren nagusitasuna. Ahozkoasuna albo batera geratzen da.
3. Konduktismoaren erabilera ikas-prozesuak aktibatze-ko, indartzeko edo zigortzeko. Konduktismoa epe laburrean eraginkorra dela dio Ezeizak, baina epe luzean, eskasa dela.

Beste alderdi bat ere gehitu behar zaie aurreko hiru arazo horiei: euskararen didaktikaren gaineko ikerketa askorik ez dela egiten.

Ikasleek arrazoi

Ikasleek arrazoi dutela uste du Ezeizak: “Literaturari

buruz aipatzen dutena ere kontuan hartzeko modukoa da: autore klasikoak ezagutu behar dira, baina gaur egungo literaturan helduleku zoragarria dugu: poesian, entseguan, narratiban... Eta ikastetxeetan aspaldikoari eusteko joera dugu”.

Boloniako prozesuak aldaketa ekarri zuen euskararen didaktikari dagokionez. Lehen *Euskara eta bere didaktika* zen ikasgaia *Hizkuntzaren eta literaturaren didaktika* da orain, orokorrean, eta hizkuntzen didaktikan hainbat alderdi komunak diren arren, desberdinak dira euskararen didaktika eta gaztelaniarena edo frantsesarena. Hori ahulezia gisa ikusten du Ezeizak: “Hizkuntzalaritzan didaktikari lotutako irakasgaiak sartzen hasi dira eta Bigarren Hezkuntzako masterra hor dago, baina DBHk eta Batxilergoak antolaketa aldetik eta forma aldetik arazo endemiko batzuk dituzte eta horiek aldatzen ez badira, zaila da irakasleak formatu arren, hainbat gauza aldatzea. Adibidez, klaseak 50 minutukoak dira hain astunak ez izateko, baina horrek ikaskuntza prozesu sakonagoa aktibatzea zailtzen du”.

“Eta bestea da ahozkoasunaren gaia: gaztelaniaz eta frantsesez arazorik gabe landu dezakete eta ingelesaren kasuan ere erraz ikasten dituzte ahozkoasunaren elementuak, masa kultura oso indartsua delako. Guk ez dugu halakorik eta ikastetxeetan egin beharko genuke.

“Kalifikazioaren zigor-indarra erabili gabe ikasleek beren hizkuntza ohiturekin esperimenta dezaten saiatu behar dugu”

Ainhoa Ezeiza, EHUko irakaslea

GAIA: EUSKARAKO ESKOLAK JOMUGAN

Baina ezin dugu pentsatu ahozketasuna lantzen dugula ikasleek ahozko aurkezpenak edo eztabaida antolatuak egiten dituztelako. Ahozketasuna lantzeko beste modu batzuk garatu behar ditugu”, dio Ezeizak.

“Komunikazio gaitasunaren ikuspegiak finkatu zuen, hizkuntzari lotutako edozein ikas-ekintza ekintza komunikatibotik abiatu behar dela. Komunikazioa egon behar duela, eta hori garatzen doan neurrian, gramatika bigarren planoan txertatzen dela. Komunikazio ekintza bere testuinguruan txertatu beharko genuke. Giro ego-kia sortu behar dugu eta, gero eta benetakoagoa izan, are eraginkorragoa izango da komunikazio jarduera. Hori da gure erronka”, azpimarratu du Ezeizak.

Hizkuntz paisaiaren kontzeptua lantzearen garrantzia aipatu du ondoren: “Paisaia horretan euskal giroa egotea garrantzitsua da. Giroa sortu behar da, ezagutza historikoa eta kulturala txertatuz”. Hizkuntza estresa murriztea ere garrantzitsua da: “Gaizki hitz egiteak beldurra ematen die askotan, irakasleak ebaluatuko ote dituen kezka izaten dute... Kalifikazioaren zigor-indarra erabili gabe ikasleek beren hizkuntza ohiturekin esperimenta dezaten saiatu behar dugu”.

Ikasle askok aipatzen dute ikastetxeetan euskara bultzatzeko hartzen ari diren hainbat neurri inposaketa modura bizitzen dituztela. Konduktismoarekin lotu du Ezeizak ideia hori: “Konduktismoak mekanismo txikietarako balio du: adibidez, pertsona batek 'ni uste du' esaten badu eta zuk berehala 'nik uste dut' esaten badiozu, hori zuzendu behar duela ohartarazten diozu eta horrelako kasuetarako interesgarria da, baina gauza konplexuetan konduktismoa aplikatzen baldin baduzu, erantzun, sari edo zigor hori kentzen duzun unean ikusiko duzu aldatu nahi zenuen portaera hori ez dela aldatu. Modu horretan ez da euskararekiko kontzientziarik edo interesik garatzen”.

Irakasleen lana aztergai

Irakasleak motibaziorik gabe eta ilusiorik gabe ikusten dituzte Euskarabenturan parte hartu zuten gazteetako



askok eta Ezeizak uste du irakasleek beste modu batera egin behar dutela lan: “Saiatzen gara egoera ludikoak sortzen edo euskara jarduera plastikoekin lotzen, adibidez. Ikaskuntza esanguratsua lortzeko hainbat diziplina lotzea garrantzitsua da. Bestela, ikasgelara iristen zara, liburua 10. orrialdean zabaltzeko esaten diezu, isilik egon daitezen eskatzen pasatzen duzu denbora eta motibaziorik gabe amaitzen duzu. Gazteek dioten moduan: ilusiorik gabe. Izan ere, nola izango duzu ilusioa 10. orrialdeko ariketak zuzentzeko? Horrek irakasle gisa ez zaitu estimulatzeko”.

Eta nola egin daiteke euskara erakargarri ikasgelan? Irakasleek irudimenez jokatu behar dute, testuinguruaren arabera egokitu, eta oso adi egon behar dute. Talde guztiekin berdin jokatzeko ezinezkoa dela dio Ezeizak: “Taldea bakoitzak bere nolakotasuna du. Konfiantza giroa sortu behar dugu eta irakaslearen rolari eutsi behar diogu baina zabalik egon behar dugu ikasgelan dauden pertsonekin lan egiteko. Egoeraren arabera ere, tresna berriak asma ditzakegu eta parte hartzen irakatsi behar diegu. Ez dago forma metodologiko bakarra. Irakasleok gure sormena, irudimena, gaitasunak eta jakintza erabiltzen ditugunean askoz gustagarriagoa da dena, eta guk gozatzen dugunean ikasleek ere gozatzen dute. Etsi gabe saiatzeko jarraitu behar dugu”.

“Irakasleok gure sormena, irudimena, gaitasunak eta jakintza erabiltzen ditugunean askoz gustagarriagoa da dena, eta guk gozatzen dugunean ikasleek ere gozatzen dute”
Ainhoa Ezeiza, EHUko irakaslea



“Ikaskuntza ikasleen esku
uztea onartuta dago,
baina ebaluazioa ez”

ELKARRIZKETA: NEUS SANMARTÍ

EBALUAZIO HEZITZAILEAN ADITUA

Hik Hasiren 'Lehen Hezkuntza eraldatzen' graduondokoan izan berri da Neus Sanmartí aditu katalana ebaluazio hezitzaileari buruzko formazio saioa ematen, Marisol Uria Hezkuntza Berrikuntza aholkulariarekin batera. Jada Kimika ikasketak egiten ari zela garbi zuen irakasle izan nahi zuela, andereño zuen lehengusina bat erreferentzia inportantea zelako harentzat. 68ko maiatzaren bueltako giroan hasi zen institutu berri

batean, talde berritzaile batekin, eta Rosa Sensat Kataluniako irakasleen elkartean parte hartzen ere bai. 1970eko Espainiako Hezkuntza Lege Orokorrekin institutua itxi egin zen eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan hasi zen eskolak ematen. Rosa Sensateko irakasle asko joan ziren hara, irakasle berritzaileak eta geletan esperientzia zutenak. Zentzu guztietan testuinguru oso estimulatzaileak bizitzeko zortea izan duela dio.



Zure baieztapenetako bat da honako hau: ebaluazioak irekitzen ditu benetako eraldaketarako ateak, ebaluazioak dena ukitzen baitu. Beraz, benetako aldaketak egiteko, ebaluaziotik hasi behar al da?

Ondorio horretara iritsi ginen Jaume Jorba irakaslea eta biok 90eko hamarkadan Bartzelonako udal institutuetan aritu ginenean. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan ari ginen eskolak ematen biok —Jaume Matematikako Didaktika Sailean eta ni Zientzien Didaktika Sailean— eta Marta Mata hezitzaileak eta Rosa Sensateko kideak deitu zigun guri eta beste batzuei. Orduan Bartzelonako zinegotzi zen Marta [Mata] eta Udalak udal eskoletako eta institutuetaiko irakasleentzako formakuntza plan bat bultzatu zuen, zentro osoarentzat pentsatua, lau urtekoa, ez ikastaro solteetan oinarritua, eta LOGSeren curriculum berriaren ikuspegiarekin. Etapa eta espezialitate guztietako irakasleentzako formazioa zen eta Jaume eta biok elkarrekin hasi ginen, diziplinartekotasunean eta Matematikako eta Zientzietako gaiak lotuz. Guztira zortzi urtez aritu ginen, Marta

zinegotzi izan zen bi legealditan.

Batzuk curriculum-a hartu eta hark esaten zuenetik abiatu ziren, baina gu irakasleek gelan egiten zutenetik abiatu ginen: zer ari zarete egiten eta zer hobetuko dugu? Nola irakatsi dezakegu ideia hau ongi eta curriculum berriarekin lotuz?

Lehen ikasturtearen amaieran, irakasleak ebaluazioari buruz galdezka hasi ziren. Guk ez genekien ezer, baina eskatu zutenez, ikertu beharra geneukan. Uda zeregin horretan pasa genuen. Frantzian ebaluazio hezitzaileari buruzko artikulu bat argitaratu berria zen eta ikuspegi hura gustatu zitzaigun. Horrela, irailerako proposamena prestatu eta irakurritakoa praktikan jartzen hasi ginen bi institututan.

Lehendabiziko ikasturtean testue-tan esaten zuten guztia praktikan jartzen saiatu ginen, baina konturatu ginen beharrezkoa zela modu kooperatiboan lan egitea ongi lantzea, koebaluatze-ko lan kooperatiboaren balioak barneratuta eduki behar direlako.

Bigarren ikasturtean, ebaluazio hezitzailearen ikuspegiarekin jarraituz, modu kooperatiboan lan

egitea asko landu genuen. Hirugarren ikasturtea hauteman genuen arazo bati aurre egiteko erabili genuen: ikasleek elkar ebaluatzen zutenean, ikaskideak idatzitakoa ez zutela ulertzen konturatu ginen. Irakasleok intuizioz asmatu ohi dugu, baina ikasleek ez. Eta beraz, hizkuntza landu genuen ikasturte hartan: nola ikasi idazten eta irakurtzen gure arloetan, Zientzietan eta Matematikan? Ordura arte ikasle batek zientzia bazekiela baina ez zekiela idazten esaten genuen; baina kontzeptua aldatu egin genuen eta, idazten ez baldin bazuen, ez zuela barneratzen esatera pasa ginen. Horregatik, pertsona batek ez baldin badaki zientzia esplikatzen, zientziarik ez dakiela diot nik. Lehendabizi egin egin behar da, ukitu; gero ideiei buruz hitz egin behar da; gero idatzi egin behar da; eta azkenik, barneratzeko, esan egin behar da, norberak bere buruari kontatu.

Laugarren ikasturtean beste urrats bat egin genuen. Ongi pentsatu behar genuen zer irakasten zen, eta galdera batzuk planteatu genituen: esanguratsua den zer ari gara irakasten? Zer da benetan oinarritzakoa

eta funtsezkoa? Eta horrela, ikas-kuntza zikloak lantzen hasi ginen, horien bidez benetan oinarritzeko diren elementuak lantzen direlako ikasleak ikastera irits daitezzen, eta ez azaleko elementuak. Nik zibilizazioen adibidea jartzen dut beti: Mazedonia, Egipto... bakoitzeko gauzak ikasten joaten ginen eta gero gauza gutxi edo batere ez genituen gogoratzen. Aldiz, zibilizazioa kontzeptuaren atzean dauden ideia gakoak zein diren ikasiz gero, transferitu daitezke. Gaur egun ez zaigu interesatzen zibilizazioen detaileak jakitea, Interneten bilatu baititzakegu. Interesatzen zaiguna da zibilizazio bat zer den jakitea, ezagutzen ez dugun zibilizazio bati buruz jakin nahi dugunean ezagutza transferitu ahal izatea ahalbidetzen duelako. Eta horretarako, baliagarriak diren galdera onak eduki behar ditugu. Ez dugu Interneten egipziarrak bilatu eta jartzen duena kopia behar, ez; oinarritzeko diren eta modu esanguratsuan irakurraziko diguten galderak eduki behar ditugu.

Ikasteko, galdera egokiak egitea funtsezkoa da, orduan, zure ustez?

Bai. Oso garrantzitsua da argi edukitzea zein ideia irakatsi behar diren eta gelan nola lan egin. Ikaskuntza-irakaskuntza prozesua metodoetatik haratago doa. Ez du axola proiektu-ka lan egin, lan kooperatiboak egin, ohiko eskolak eman edo ikas-egokietan aritu. Ikasgai bakoitzaren azpian oinarritzeko ideiak daude eta horiek ikasi behar dira. Horretarako, galderak oso garrantzitsuak dira.

Sarritan metodoak aldatzen ditugu, baina ikasleek ikastea ez dago metodoen baitan, ebaluazioaren arabera baizik. Metodo batekin akatsak egiten baldin badira eta okertze hori zuzentzeko modurik ez baldin bada pentsatu edo aurreikusi, berdin du zein metodo erabiltzen duzun.

Ikastetxe baten eraldaketarako motorra den ebaluazioa nola definitzen duzu? Zein ezaugarri ditu planteatzen duzun ebaluazio hezitzaileak?

Hasteko, oso garrantzitsua da akatsa modu positiboan ikustea, okertzea

txarra delako ustea alboratzea eta huts egitea ona dela ulertzea; erratzaren garelako ikasten dugu. Baina ulertzeko modua aldatzea ez da batere erraza. Neska-mutilek akatsa txarra dela ikasten dute, huts egiteak ezkutatu egiten dituzte, nabari-tu ez dadin saiatzaren dira, inor ohar ez dadin saiatzaren dira... eta gelan osasuntsua ez den giroa sortzen da.

Idea nagusia hau da —eta hurrengoak honekin lotuta daude—: akatsak egiten ditugunean hobetu dezakegu eta gainditu ditzakegu. Eta horri lotuta, bi ideia inportante daude. Lehenbizikoa, akatsaren zergatia ulertu behar dugula. Hau da, ez dugu esan behar “okertu egin naiz”, “ongi egin dut” edo “gaizki egin dut”, baizik eta “zergatik egin dut gaizki?”. Ez baldin badakit zergatik ez dudun ulertu, ezin dut hobetu.

Beraz, eta ondorioz, bigarren ideia garrantzitsua: behin ulertuta, erabakiak hartu behar dira, erabaki onak. Eta hori da beste gauza zailetakoa bat. Ikasleek hobetzeko zer egin behar duten galdetzen dutenean, “gehiago ikasi, adi egon, arretarik ez galdu...” erantzuten zaie. Baina hori esateak ez du ezertarako balio. Hurrengo egunean arreta galtzen jarraitzen dute. Erantzun zehatzagoak eman behar zaizkie.

Gainera, ebaluazio hezitzaileak egiten duen ekarpena da ikasleak berak hartu behar dituela erabakiak. Autonomiak esan nahi du ikasleak erabaki bat hartu behar duenean, erabakia hartzeko gai izan behar duela zertan huts egin duen ulertuz eta laguntza bideak irekiz. Erabakia beti ikaslearena da. Ez dio esan behar irakasleak “begira, hemen huts egin duzu, hau nahastu duzu, egizu orain berriro modu berri honetara”.

Nolakoa izan beharko luke irakasle-ikasle arteko elkarrizketak galdera irekietan oinarrituz eta autonomia lantze aldera?

Gaizki edo ongi zer egin duen esan ordez, galderak egin behar zaizkie: “Zein beste modutara egin dezakezu? Pentsatu al duzu aukera honetan? Zergatik uste duzu egin duzula

“Oso garrantzitsua da argi edukitzea zein ideia irakatsi behar diren eta gelan nola lan egin”

“Modu hezitzailean ebaluatzeko oso inportantea da akatsa era positiboan ikustea, akatsaren zergatia ulertzea, eta behin ulertuta, erabaki onak hartzea”

“Ebaluazio hezitzaileak egiten duen ekarpena da ikasleak berak hartu behar dituela erabakiak”

“Ikasleei gaizki edo ongi egin duten esan ordez, galderak egin behar zaizkie: zein beste modutara egin dezakezu? Pentsatu al duzu beste aukera honetan? Zergatik uste duzu egin duzula modu horretara?”



modu horretara?”. Elkarrizketa mota hau irekia da eta feedbacka eta feedforwarda ahalbidetzen ditu. Feedforwardak erabakiak hartzea esan nahi du, aurrera egitea. Gauza bat da huts egin izana, ongi; baina orain zer egin dezaket? Hori da feedforwarda.

Eta hori beste gauza oso inportante batekin lotuta dago: zerk ahalbidetzen du pertsona bat autoerregulatzeari edo autoebaluatzea erabakiak har ditzan? Erregulazioak hori esan nahi baitu, funtsean: erabakiak hartzea. Erregulatzeak zerbait aldatzea esan nahi du, doitzea.

Autoerregulazioa ebaluazio hezitzailearen zutabeetako bat da. Are gehiago, anglosaxoiek ebaluazio hezitzailea kontzeptuaren ordean autoerregulazioa erabiltzen dute. Nola landu daiteke autoerregulazioa? Zein baldintza behar ditu ongi garatu dadin?

Hiru oinarritzko baldintza ditu autoerregulazioak. Lehenengoa da norbaitek zerbait egiten duenean

helburuak oso argi eduki behar dituela; eginkizuna zergatik egiten duen jakin behar du. Ume batek fitxa bat egiten duenean, zergatik egiten duen jakin behar du. Normalean ikasle txikiek, handiek zein unibertsitatekoek, lan bat egiten duenean agindu dietelako egiten dute, baina ez dakite zertarako balio duen eta zergatik ikasi behar duten. Izugarritzko lanak eta proiektuak egiten dira, oso landuak eta ikusgarriak; bukatu ondoren gelatik atera eta umeei galdetuz gero lan horrekin irakasleak beraiek zer ikastea nahi zuen, gauza asko erantzuten dituzte; gero irakasleari galdetu eta erantzunek ez dute bat egiten. Beraz, denbora galtzea izan da. Ezinezkoa da autoerregulatzeari ez baldin badakit zer den ikasi behar dudana.

Autoerregulazioaren bigarren baldintza da —anglosaxoiek hau ez dute aipatzen, baina lotuta dago— lana egin aurretik zer egin behar den pentsatu behar dela, planifikatu. Arazoak ebazten onak direnek denbora asko pasatzen dute

nola egin pentsatzen eta ondoren denbora gutxi pasatzen dute egiten; arazoak ebazten onak ez direnak, alderantziz, pentsatu gabe hasten dira ebazten edo testu bat idazten. Eskolan ere gauza bera gertatzen da: emaitzari ematen diogu garrantzia eta ez planifikatzeari. Ondorioz, normala da umeak zuzenean emaitzara jotzea eta ez planifikatzera.

Eta hirugarren baldintza da —anglosaxoiek ere jartzen dutena— ebaluatzeko irizpideak zein diren jakitea. Ikasleek jakin behar dute zein diren eta hori da misteriorik handiena: ez dakizkitela inoiz. Are gehiago, askotan irakasleek ere ez dakite ebaluazio irizpideak zein diren esaten kontzienteki. Ume bartzuek asmatzen dute, sumatzen dute irakasleak zer nahi duen eta hori egiten dute. Halere, irizpide horrek ez du balio zer ikasi duten jakiteko, irakasleak baloratuko duena egiteko baizik. Beraz, ez du esan nahi nota onak ateratzen dituenak gehiago ikasi duenik, eskatzen zaionari hobeto egokitzen zaiola baizik.

Aipatutako hiru baldintzak betetzen baldin badira, orduan bai esan dakiekeela ikasleei “autoebaluaratu zaitezte, koebaluaratu zaitezte”. Halere, kontuz ibili behar da praktika txarrekin.

Zein dira, bada, egiten diren praktika txarrak?

Irakasleei esan zaie ikas-egoerak edo dena delakoa lantzen hasi aurretik, helburuak eta ebaluazio irizpideak zein diren esan behar dutela. Eta orduan, idatzi eta ikasleei “hemen dituzue” esaten diete. Eta hori ez da partekatzea. Ez da gauza bera esatea eta partekatzea. Nik partekatzekeo jarduerak egitea proposatzen dut, ez hobeto komunikatzeko soilik, baizik eta ikasleek dakitenetik abiatzeko. Partekatzekeo denbora hartu behar da. Askorentzat hori denbora galtzea da, baina ez, irabazi egiten da.

Modu horretara ikasleei ebaluazioan ere protagonismoa ematen zaiela esan daiteke.

Bai. Asko hitz egiten da ikaslea erdigunean jartzeaz eta ikaskuntza

prozesuan ikasleari protagonismoa emateaz, baina ebaluazioak irakaslearena izaten jarraitzen du. “Nola utziko dugu ebaluazioa ikasleen esku?” diote irakasleek. Ikaskuntza ikasleen esku uztea onartua dago, baina ebaluazioa ez.

Ebaluazio jarraia ez ote da nota jarraiarekin nahasten sarritan?

Bai, hala da. Askok esaten didate ebaluazio jarraia egiten dutela eta jada amaierako azterketarik ez dutela egiten. Baina ebaluazio jarraia deitzen diote egiten duten lan bakoitzari nota jartzeari eta bukaeraren batezbestekoa ateratzeari. Eta horrek ez du zentzurik. Okerreko ideia dela uste dut. Ikastetxe batean 28 nota zeuzkaten proiektu bat ebaluatzen. Ikasleekin egindako jarduera bakoitza ebaluatzen zuen irakasleak.

Badirudi jarduera bakoitzari nota jartzen ez bazaio, ikasleek ez dutela egiten. Ezin da lehen jardueran “gaizki egin duzu” jarri, azkenekoan “oso ongi egin duzu” eta batezbestekoa jarri. Horrek ez du zentzurik: azkenekoan ongi egin baldin badu, hori da nota, ikasi du. Ikaskuntza prozesu bat da, ez jarduera egitea soilik.

Azterketak egitearen aldekoa ala kontrakoa zara?

Badirudi azterketa bat egitea zerbait txarra dela orain. Eta nik uste dut egokia dela ongi planteatutako azterketa bat egitea edo zenbat ikasi dugun jakiteko proba egitea. Baina azterketak galdera honi erantzuteko balio behar du: “Ea, lan hau guztia egin dugu, eta ea orain badakigun transferitzen eta beste egoera batzuetan aplikatzen; proban jarriko dugu geure burua”. Hori egitea ongi dago. Eta nahi izanez gero, ikasketa jakin horren nota jar daiteke.

Jarrerak ere ebaluatzen dira, baina askoren kezka izaten da, adibidez, nola ebaluatu esfortzua. Nola neurtu behar dira jarrerak?

Berariaz landu dena soilik ebaluatu daiteke; landu ez dena ezin da ebaluatu. Beraz, irakasleari galdera hau egin behar zaio: landu al duzu

esfortzua? Jarrerak lantzea ez da ikasleei esfortzua edo jarrera ona edukitzea zer den esplikatzea, baizik eta testuinguru egoki bat antolatzeari bultzatu nahi den jarrera gauzadain. Jarrera hori taldean bizitzeko aukera izan behar dute, gero ebaluatu nahi baldin bada. Hori egiten ez baldin bada, ezin da ebaluatu. Eta sarritan hori egiten da, landu gabe ebaluatu. Etiketetik dakartena ebaluatzen da, hori lantzeko eskolan ezer egin ez delarik, eta ez da bidezkoa.

Lanak eta azterketak zuzentzeak ez duela ezertarako balio esaten duzu eta irakasleak zur eta lur geratzeko moduko baieztapena da. Azalduko al dizkiguzu arrazoiak?

Mundu mailako ikerketa guztiek frogatu dute lanak eta azterketak ikasleei zuzenduta itzultzeak, batez ere zenbakia jartzen baldin bazaie, ez duela ezertarako balio. Ikerketa zabal batek hiru zuzenketa mota ikertu zituen: zenbakia zutenak, komentarioak zituztenak eta zenbakia eta komentarioak biak zituztenak. Zenbakia jartzen baldin baduzu, ez du ezertarako balio, ez du ikasteko eta hobetzeko balio. Komentarioak ikasle onentzat bakarrik balio du, pista bat ematen baitiete. Aldiz, zailtasunak dituzten ikasleek ez dituzte komentarioak ulertzen, beste arazo batzuk dituzte; zergatik ez duten ulertzen jakin behar dute eta komentarioek ez diete balio horretarako. Zuzenketek batzuentzat bakarrik balio du zertxobait, eta kasu horietan, koebaluazioa eginda eta elkarri lagunduta nahikoa izango litzateke.

Irakasleen identitate pertsonalarekin zerikusia duen ekintza da lanak zuzentzea. Zuzentzen baldin baduzu, irakasle ona zarela pentsatzen duzu; segurtasuna ematen dizu, gertatzen dena kontrolatzen duzu... Familiei diegun beldurra rekin ere lotura du; familiek uste dute zuzentzen ez duen irakasleak ez duela ezer egiten. Zuzenketek ez dutela zentzurik esplikatzen esaten diet, baina kosta egiten da. Aldiz, ikerketek oso agerian utzi dute lanak zuzentzeak ez duela ezertarako balio.

“Sarritan metodoak aldatzen ditugu, baina ikasleek ikastea ez dago metodoen baitan, ebaluazioaren arabera baizik”

“Ezinezkoa da autorregulatzea ez baldin badakit zer ikasi behar dudan”

“Asko hitz egiten da ikaslea erdigunean jartzeaz eta protagonismoa emateaz, baina ebaluazioak irakasleena izaten jarraitzen du”

“Berariaz landu dena soilik ebaluatu daiteke”

“Mundu mailako ikerketa guztiek frogatu dute lanak eta azterketak ikasleei zuzenduta itzultzeak ez duela ezertarako balio”

ESPERIENTZIAK I

EMAKUMEAK ZIENTZIAN

Zientzia nesken kontua ere badela erakutsi dute ikastetxeetan

‘Emakumeak Zientzian’ ekimenaren 7. edizioa egin da aurten eta ikastetxeetan oihartzuna izan du. Emakume zientzialariak ikastetxeetara gerturatu dira haien bizipenei eta lanari buruz hitz egitera eta ikasleak ikerketa zentroetara ere joan dira. Zientzia nesken kontua ere badela gogorarazteko balio izan dute ekimenok.

Duela zazpi urte xumeki abiatutako ekimenean aurten 24 euskal erakundek hartu dute parte, eta 50 jardueratik gora antolatu dituzte denen artean. Jarduera horietako batzuk ikasleei eta irakasleei eskaini zaizkie eta zientzia arloan emakumeen presentzia eta egoera nolakoa den ezagutzeko aukera eman diete.

Mari Luz Guenaga Deustuko Unibertsitateko Ingeniaritza Fakultateko irakasleak eta Emakumeak Zientzian ekimeneko koordinazio taldeko kideak argi adierazi du zein den jarduera horien helburu nagusia: “Normaltasunez ikustea emakumeak ere badaudela zientzia arloan lanean”.

Eskolara itzulera izan da ikastetxeek eskura eduki duten jardueretako bat. Izena eman duten 24 ikastetxeetara emakume zientzialariak eta teknologoak joan dira haien bizitzari eta lanari buruzko azalpenak ematera. “Bakoitzak bere arloari buruzko hitzaldiak eman ditu, bere esparrutik hitz eginez”, dio Guenagak. “Polimero biodegradagarria, kartilagoa birsortzeko



Ikasleek esperimentu zientifikoak egin dituzte ikastetxeetan. Arg: Emakumeak Zientzian.

3D egiturak, plastikoen birziklapena, nola erabili neutroiak material biguna ikusteko eta abar. Gai horien barruan, bakoitzak bere esparruan nola lan egiten duen azaldu du”. Emakume gisa, ikasketetatik hasi eta lan mundura arte zein bizipen izan dituzten ere azaldu dute. Ikasleen jakin-mina egindako ibilbideari buruzkoa izaten da, batik bat, Guenagak azaldutakoaren arabera:

“Batez ere zein ikasketa egin dituzten, zer pauso jarraitu dituzten... jakin nahi izaten dute. Hau da, nola iritsi diren ailegatu diren lekura edo lanbidera”.

Neskek zein mutilek entzuten dituzte hitzaldiak eta denentzat interesgarria eta onuragarria delad dio Guenagak. “Neskentzat erreferentzia dira emakume zientzialariak eta teknologoak, haien ispilu izan



Ikasleak eta zientzialariak elkarrekin jarduera bat egiten. Argazkia: Emakumeak Zientzian.

daitezke eta identifikazio aldetik garrantzitsuak dira. Historikoki ikusezinak izan dira emakumeak eta ikusten ez dena ez da existitzen sarritan, eta beraz, esparru hori ez da helburutzat hartzen”. Badaude emakumeak zientzian lan egiten eta horien lana balioan jartzea garrantzitsua da, atzetik datozen neskek eta emakumeek erreferentziak izan ditzaten, emakumei dagokien arloa ere badela ikus dadin. “Mutilentzat, bestalde, zientziak mutilen eta nesken kontua direla ohartzeko balio du”, jarraitzen du Guenagak. “Hau da, euren bizitzan zehar arlo hauetan emakumeak aurkituko dituztela jakitea eta hori normaltasunez bizitzea garrantzitsua da. Zenbat eta teknikoagoak izan arloak, orduan eta arrotzagoa da emakumeak bertan egotea, baina egon badaudenez, normaltasunez ikustea da xedea. Azken finean, jakin dezatela beraientzat aukera bat dela, beste edozein aukera bezala”.

Bertatik bertara ere bai

Enpresetara eta ikerketa zentroetara bisitak ere antolatzen dituzte eta lanbidearen nondik norakoak bertatik bertara ezagutzeko aukera ematen dute. “Zer egiten den eta zer motatako produktuak edo zerbitzuak garatzen diren erakusten

zaie”. Bisita horietan emakumeek ematen dituzte azalpenak eta emakume zientzialariak lanean ikusten dituzte. Besteak beste, hauek izan dira bisitatu dituzten ikerketa zentroak: Achucarro, CIC biomagUNE, Tecnalia, BCBL, Biofisika Institutua eta Biodonostia. Guztira 400 ikasle inguru ibili dira zentro horietan.

Tailerrak ere eskaini dituzte hainbat gairen inguruan: algoritmoak, neurozientzia, neuroteknologia, informatika, kriptografia... “Kasu batzuetan ikastetxeetara joan gara gu eta beste kasu batzuetan ikasleak gerturatu dira unibertsitateetara edo ikerketa zentroetara”.

Irakasleentzat orientazio akademikoari lotutako saio bereziak ere eskaini dituzte, STEAM hezkuntza lantzeko pautak ematera bideratuta. Guenagak dioenez, “saio horietan STEAM hezkuntza zelan bultzatu dezakegun hausnartu da, eta baita genero ikuspegia nola txertatu dezakegun ere”. Lehen Hezkuntzako zein Bigarren Hezkuntzako irakasleei bideratutako ekintza izan da eta ideiak eta esperientziak elkarrekin partekatzeko aukera eman diete.

Jarduera horiek guztiek emakumeek zientzia arloan duten presentzia ikusarazteko balio dute, historikoki ikusezinak izan direlako, eta

baita arlo horiek ezagutzeko ere. Izan ere, Guenagak dioen moduan, eguneroko bizimodutik urrun gertatzen diren lanbideak dira, “eta ezin dute imajinatu zer den Tecnalia, Deustuko Unibertsitatean, Nanogunen edo beste ikerketa zentroetan lan egitea. Gauza interesgarriak egiten dira, gizartearentzat oso beharrezkoak eta garrantzitsuak diren produktuak eta egitasmoak garatzen dira, eta horren berri izatea inportantea da. Ikerketa zentroetan talde lanak garrantzi handia dauka eta taldeka nola lan egiten duten ikustea ere oso interesgarria da. Informazioa edukitzea eta hori guztia gertuagotik eta gehiago ezagutzera ematea ere bada gure helburua”.

“Helburua da normaltasunez ikustea emakumeak ere badaudela zientzia arloan lanean”

Mari Luz Guenaga
Deustuko Unibertsitateko
irakaslea eta
Emakumeak Zientzian
koordinazio taldeko kidea

ESPERIENTZIAK II

EUSKARAREN EZAGUTZA MAILA NAFARROAN

Nafarroan D ereduko ikasle gehienek euskarazko B2 maila lortzen dute DBH amaitutakoan

Nafarroan D ereduan ikasten duten ikasleek euskararen ezagutza maila oso ona lortzen dute, baita eremu ez euskalduneko ikastoletakoek ere. NUHEO Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialean egiten dituzten azterketen emaitzak dira horren lekuko.

Ereindakoak ematen du, eta horixe da Nafarroan D ereduko ikastetxeetan euskararen ezagutzarekin ikusten ari direna: NUHEO Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialeko azterketetara aurkezten diren ikasle gehienek B2 maila lortzen dute DBH amaitutakoan. Eta Batxilergoko ikasleen erdia baino gehiagok, C1 maila. Garbiñe Urreizti Lezertua NUHEOko zuzendariak hala baieztatzen du: “Euskarako B2 azterketa gainditzen duten ikasleen ehunekoa oso altua da, % 90 baino gehiago, eta arazorik gabe lortzen dute ziurtagiria. Euskararen ezagutza maila onarekin bukatzen dute Derrigorrezko Hezkuntza”. Baita eremu ez euskaldunean ere, Tafallako ikastolan kasu. “Orain dela 14 urte hasi ginen gure ikasleekin azterketa horretara aurkezten. Ia-ia ikasle gehienek egin dute azterketa, 322tik 315ek, % 97,8k, eta aurkeztu diren horietatik 295ek gainditu dute, % 93,6k”, dio Angel Iriso Tafallako Garcés de los Fayos ikastolako Euskara irakasle jubilatu berriak. “Horrek esan nahi



du, gurasoek euren seme-alabak 3 urterekin ikastolan matrikulatzen dituztenean, ia-ia ziurtatuta daukate DBH amaieran B2 ziurtagiria aterako dutela, hau da, euskara maila onarekin aterako direla”. Iruñeko Jaso ikastolan ere antzeko emaitzak dituzte, Andoni Sagastibeltza DBH 3. eta 4. mailako Euskara irakaslearen esanetan: “ikasleen % 95-98 aurkezten da azterketara, eta ziur-

tagiria % 95ek ateratzen dute. Are gehiago, azken urteetan, DBHko hainbat ikaslek C1 azterketa egin dute eta baita gainditu ere. Aurten, DBH 4. mailako ikasleetatik 28k B2 azterketa egingo dute, eta 22 ikaslek C1 proba. Horrek maila badutela erakusten du”.

Lankidetzeta programa
Nafarroako Urrutiko Hizkuntza



Eskola Ofizialak lankidetzatza programa bat dauka Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ikastetxe publikoekin, kontzertuetuekin eta ikastolekin, eta programa horri esker, nahi duten ikasleek NUHEOren azterketa ofizialak egin ditzakete eta modu horretara ziurtagiriak lortu ditzakete lau hizkuntzatan: euskara, alemana, frantsesa eta ingelesa. “Lankidetzatza programa horren bidez, DBHko ikasleen hizkuntza curriculumak eta Hizkuntza Eskola Ofizialekoak bateratu egiten dira eta tituluak lortzea ahalbidetzen du”, azaltzen du Urreiziti Lezertuak. “Azken finean, Bigarren Hezkuntzak eta hizkuntza eskolak badute gauza bat komunean hizkuntzari dagokionez: irakaspen komunak dituztela eta gelan irakasten dela bietan. Hori probestea da programa honen filosofia”.

Horretarako, ikastetxe laguntzaileen edo kolaboratzaileen bitartekaritzatza baliatzen dute. “Ikasleek eskolan ikasten dutena eta gure azterketak egiteko jakin behar dena uztartzen laguntzen digute ikastetxeetako irakasle laguntzaileek. Hau da, azterketa nolakoa izango den, ebaluazio irizpideak zein izango diren eta ikaslearen ekoizpena nola neurtuko den jakiteko eskubidea dute ikasleek. Horretarako, hainbat material, dokumentu eta lan prestatzen ditugu baliabide digitalen bitartez, eta irakasleen eta ikasleen eskura jartzen ditugu”.

Material hori ikastolan lantzen

duten Eki proiektuarekin uztartzen dute Iruñeko Jaso ikastolan. “Material ugari dago, oso egokia eta dinamikoa, eta ulermena, idazmena zein ahozkoa lantzeko erabiltzen dugu”, dio Sagastibeltza irakasleak.

Guztira 80-100 ikastetxek hartzen dute parte programa honetan; hizkuntza guztiak aintzat hartuta 7.000 ikasle inguruk, eta euskarako azterketa egingo dutenak 2.600 inguru izango dira aurren. Iruñeko Jaso ikastolako ikasleak izango dira horietako batzuk eta Sagastibeltza irakasleak dio oso interesgarria dela programa honek egiten duen planteamendua, “titulazio ofiziala bermatuta geratzen baitzaie”.

Mintzamena eta idazmena jomugan

Azterketak bost proba ditu: ulermeneko bi —irakurri eta ulertu bata, eta entzun eta ulertu bestea—, idatzizko bat, mintzameneko bat eta bitartekotza (iritzirik eman gabe artikulatu batean jartzen duena idatziz azaltzea eta infograma batean ikusitakoa ahoz adieraztea). Tafalla ikastolako Irisok dio ulermenean ez dutela inolako arazorik, “erronka handienak mintzamena eta idazmena dira eta arlo horiekin lanketa berezia egiten dugu. Mintzamenen, adibidez, grabazioak egiten ditugu eta ahoz adierazi behar izaten dute zerbaitek nola funtzionatzen duen, zer dakiten egiten, gai bati buruz hitz egin, elkarriketa batean aritu... Eta gero, jakina, jarraipena egin eta ebaluatu egiten ditugu etorria,

aberastasuna, jatorritasuna eta dena. DBHko ikasmaila guztietako ebaluazio guztietan ebaluatzen dugu mintzamena eta garrantzi handia ematen diogu horri. Izan ere, askotan idazmena, gramatika, literatura eta abar ebaluatzen dira, baina mintzamena ez, eta guk berau lantzeko konpromisoa hartua daukagu”.

Lanketa hori Nafarroako Gobernuko Solaskide programarekin indartzen dute. “Ikasturtean zehar 15 astetan irakasle bat etortzen da kanpotik DBH4ko taldera. Talde erdia irakasle horrekin gelditzen da eta beste erdia ikastolako Euskara irakaslearekin. Talde txikiagoetan hainbat gauza lantzen dira”.

Mintzamenarekin batera, idazmena lantzea ere oso garrantzitsua dela azpimarratzen du Irisok. “Gaur egun oso zaila da ongi idaztea eta guk garrantzi ikaragarria ematen diogu. Gutxienez, ebaluazio bakoitzean eta DBHko maila guztietan, bi idazlan zuzendu behar dizkiegu ikasleei, eta 4. mailan gutxienez hiru. Azkenean urtean hamar idazlan inguru egiten dituzte eta idaztearen poderioz gero eta hobekiago egiten dute. Gustua ematen du euskaraz nola idazten duten ikusteak”.

Sagastibeltza ere gustura dago lortzen duten ezagutza mailarekin. “Ikasleekin eta ikasle ohiekin kalean topatu eta haiekin euskara jatorrean aritzea ikaragarria da”.

**“Azterketa gainditzan
duten ikasleen
ehunekoa oso altua
da eta arazorik gabe
lortzen dute B2 maila
Derrigorrezko
Hezkuntza
bukaturakoan”**

**Garbiñe Urreiziti Lezertua
NUHEOko zuzendaria**

ESPERIENTZIAK III

ESKOLETAKO URMAELEN SAREA

Eskoletako urmaelak: laborategi naturalak

Lau urtean hazkunde handia izan du Eskoletako Urmaelen Sareak, eta orain egonkortzen ari da. Ikastetxeetako esperientziek argi erakutsi dute, hezeguneak curriculumeko edukiak eta konpetentziak lantzeko laborategi izatez gain tokian tokiko fauna eta flora ezagutzeko bitarteko apartak direla Haur Hezkuntzatik unibertsitatera bitarteko ikasleentzat.



Amaiurko eskolako haurrak hezegunea aztertzen. Argazkia: Amaiurko eskola.

Aurten beteko dira hamar urte Aranzadi Zientzia Elkar-teak, Ereñotzuko Txirrita eskolako hurrekin, irakas-leekin, gurasoekin eta auzotarrekin elkarlanean, Zepadiko urmaela sortu zuenetik. Alemaniatik ekarri

zuen Aranzadi Zientzia Elkarteko Herpetologia Sailak eskoletan urmaelak sortzeko ideia, Tubingen herriko eskola batean umeak naturara gerturatzeko urmael batera joaten zirela ikusi zutenean. Euskal Herrian antzeko esperientzia bat

egitea pentsatu zuten, eta auzolanean gauzatu ahal izan zuten ideia Hernanin. Berehala hasi ziren Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleak ikerketan: anfibioen metamorfosia landu zuten, eta arrautzak jartzeko unetik, anfibioak

zapaburu bihurtu eta heldu bilakatu arteko eraldaketa anatomiko guztia aztertu zuten. Ondoren, Zepadiko putzuan ugaltzen den baso-igel gorriaren metamorfosiaren aurkezpenak egin zituzten jendaurrean. Askok izan ziren era horretan landu zituzten arloak: natura, gizarte, matematika, euskara, arte hezkuntza, musika...

Ereñotzutik, tantaka-tantaka, urmael didaktiko gehiago eraikitzen joan dira Euskal Herriko ikastetxeetan, Aranzadiren laguntzarekin. 2019an, Eskoletako Urmaelen Sarea josi zuten eskola inguruan urmael edo putzu bat duten eta eremu horri erabilera didaktikoa ematen dioten ikastetxeek. Lau urteren ondoren, sarea egonkorturik eta indarturik ikusten dute Iñaki Sanz Azkue Ingurugelako kideak eta Ane Fernandez Arrieta Aranzadiko Herpetologia Saileko kideak. Bien artean koordinatzen dute sarea. “Proiektua ahoz ahokoari esker joan da ezaguna egiten; gero eta ikastetxe gehiagok aukera berri gisa ikusten dute urmaela, kanpo espazioa lantzeko eta, batez ere, zientzia alorrek oso modu motibagarrian lantzeko”, adierazi du Fernandez Arrietak. EgunEgun 33 ikastetxek —Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroakoak—, osatzen dute sarea. Ziklo guztietako ikastetxeak daude sartuta, eskola txikiak zein handiak, landa eremukoak nahiz eremu urbanokoak, eta baita Donostiako, Leioako eta Gasteizko campusak ere.

Urte hauetan, sarearen egiteko nagusia izan da baliabideak eskaintzea eta ikastetxeen arteko esperientzien trukea sustatzea, sareko ikastetxe bakoitzak besteen proiektuen berri izan dezan. Fernandez Arrietak irakasleentzako eta familientzako prestakuntza saioak eskaintzen ditu, urmaela zer den ezagut dezaten eta pedagogikoki eta didaktikoki nola baliatu daitekeen azaltzeko. “Hasiera batean, normala den bezala, putzu bat ikusten dute irakasle askok. Urmaela oso ekosistema aberatsa da; ura eta lurra ditu, eta horrek oso berezi egiten du eremu hori, uraren eta lurraren eremu

% 70

Urmaelen % 70 desagertu dira dagoeneko

Europar urmaelen % 70 desagertu dira, Iñaki Mezquita irakasle eta Aranzadiko entomologoaren datuen arabera. Urmaelak, putzuak, zingirak eta antzeko hezegune asko lehertu eta suntsitu dira XX. mendean zehar, zelaia, baratzeak edo soroak zabaltzeko, edota, azken hamarkadetan batez ere, herrien eta hirien handitzea ahalbidetzeko eta industria- eta merkataritza-guneak eraikitzeko.

Urmaelak desagertuz gero, agur fauna eta flora bereziari: Urmaelak fauna eta flora aniztasun handiko eremuak dira. Esate baterako, anfibioak aurkitu ditzakegu urmaeletan, eta anfibioena da mundu mailan mehatxatuen dagoen ornodun taldea. Hegaztiak, ugaztunak eta narrastiak ere gerturatzeko dira, bai janagatik, bai uragatik. Gizakiaren begietara ikusezinak diren arren —mikroskopioarekin ikusgarriak dira—, mikroorganismo urtarrik bizi dira urmaeletan, ur masa behar baitute bizitzeko. Intsektu eta ornogabe asko bizi dira, baita ere, urmaelean, eta baita odonatuak edo burrunziak ere, arrautzak uretan jarri eta euren bizitzaren fase bat uretan igarotzen dutenak. Florari dagokionez ere, aberatsak dira urmaelak, urmaelen inguruan sortzen diren landareak bereziak baitira, lur hezeen edo bustien beharra dutenez.

Urmaelak desagertuz gero, kate trofikoak puskatu egiten da. Kate trofikoak, elikakatea edo elikadura katea elikadura sare batean diren loturen sekuentzia lineala da, sareko beste espezie bakoitzak jaten ez duen espezie batetik hasi eta sareko beste inor jaten ez duen espezieraino iristen dena. Espezie horietako bakoitza bere aurreko organismoen elikatzen da, eta, era berean, hurrengoaren elikagaia da. Urmaela desagertzean, kate trofikoak eten egiten da. Urmael batean, kate trofiko osoa dago jasota: predatzaileak, harrapariak, hegaztiak, anfibioak, burrunziak, intsektuak... Gainera, ura dagoen tokia ona da beste animalientzat ere, bai ura hartzeko eta baita ehizatzeke ere. Beraz, putzu horiek desagertzean, populazio batzuk bakartu egiten dira, eta aukera gutxiago daukate aurrera egiteko.

Zergatik dute fama txarra urmaeleko intsektuek? Urmaeletan bizi diren intsektu eta animalia txikiak ospe txarra izatea kultura kontua da. Euskal Herrian, Erdi Aroan, arratoiak, beleak, hontzak, saguzarrak eta burrunziak deabruaren lagunak ziren, Mezquitak dioenaren arabera. Begi handiak dituzte, eta jakin-mina dute. Kontatzen zuten, jendeak egiten zituenei beha egoten ziren egunez, gauean deabruari kontatzeko. Hartara, pertsona guztien ahuleziak ondo ezagutzen zituen deabruak, zuzenean haiengana jotzeko. Ospe txar horrek mende mende segitu du, gaur egunera arte.



ESPERIENTZIAK: ESKOLETAKO URMAELAK



horretan oso espezie bereziak baitaude. Azken urteetan, gizakiaren esku hartzeagatik eta klima aldaketaren ondorioz, gainbehera handia bizi izan duen ekosistema da, oso zaugarria, baina, era berean, oso aberatsa. Gero eta ikastetxe gehiago ari dira ikusten aberastasun hori”, azaldu du Fernandez Arrietak.

“Ohituagoak gaude bestelako ekosistema batzuen garrantzia ikustera, baso, baratza edo erreka batena —gehitu du Sanz Azkuek—, baina eskolako ingurunean ahalik eta aukera gehien izanda (baso txiki bat, hesi txiki bat, urmaela eta baratzea, esate baterako), kanpo espazio hori aberatsagoa izango da didaktikoki”.

Sarean dauden ikastetxeen artean, corpus interesgarria ondu dute dagoeneko, eta esperientziek argi erakutsi dute hezeguneak curriculumeko edukiak eta konpetentziak lantzeko laborategi natural apartak direla, batetik, eta, bestetik, baliagarriak direla gure fauna eta flora ezagutzeko eta, beraz, naturarekin sensibilizatzeko. “Ikastetxeei feedbacka eskatzen diegu, egiten dituzten jarduerak gurekin parteka ditzaten eta beste ikastetxe batzuentzat inspirazio iturri izan daitezen, guri bururatuko ez litzaizkigukeen jarduerak egiten baitituzte”. Gas-

“Hasieran putzu bat ikusten dute irakasle askok. Urmaela oso ekosistema aberatsa da, ura eta lurra ditugu eta horrek oso berezi egiten du eremu hori”

Ane Fernandez Arrieta
Aranzadiko kidea eta Urmaelen
sareko arduraduna

“Ingurumean ahalik eta aukera gehien izan (baso bat, hesi bat, urmaela eta baratza), kanpo espazio hori aberatsagoa izango da didaktikoki”

Iñaki Sanz Azkue
Ingurugelako aholkularia eta
Urmaelen Sareko arduraduna

teizko ikastetxe hiritar bateko adibidea eman du Sanz Azkuek: “Putzua egin, eta, hasiera batean, ez zekiten zer egin urmalean Haur Hezkuntzako ikasleekin. Eta pentsatu zuten egunero-egunero hurrekin tenperatura neurtzea. Horrela, uretako tenperatura eta kanpoko tenperatura hartzen dituzte, eta korridorean paper handi bat jarri, eta kanpoko zein barruko tenperaturak idazten dituzte, eta datu horiekin grafiko bat osatu dute”. Baina ikerketa ez da hor amaitzen; Fernandez Arrietak honako hau erantsi du: “Datu bilketa hori buruntzien metamorfosiari buruzko ikerketa batekin gurutatu zuten: buruntziaren metamorfosia zer tenperaturatan gertatzen den aztertu zuten, eta bi informazioak gurutatu zituzten. Azkenik, aztertu zuten zein urtarotan iristen den ura metamorfosia gertatzeko tenperaturara, eta horren ondoren, buruntzien jarraipena egin zuten... Metodo zientifikoa erabiliz baina oso modu sinplean lantzen dute; datuak nola hartu eta grafikoak nola erabili ikasi dute, eta esperientzia hori ezagutzea oso baliagarria zaie beste ikastetxe batzuei”.

Ikastetxeen arteko ezagutza sustatzeaz gain, urmaelen sareak unibertsitateen eta ikastetxeen

Abiatzeko, proposamen errazak

Urmaelak erlazio zuzena du hainbat gairekin; esaterako, hezeguneak bitarteko zuzenak dira ura eta uraren zikloa, ekosistemak, fauna eta flora eta antzeko gaiak lantzeko; baina, gai horietatik harago, urmaelak aproposak dira eskolako beste hainbat alor lantzeko ere, laborategi naturalak diren heinean. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta unibertsitate mailako proiektuak garatu dira dagoeneko.

Aranzadi Zientzia Elkarateak egina dauka liburuxka bat urmaelei loturiko 25 jarduera didaktikorekin, eta sareko ikastetxeen esku dago. Natura, matematika, euskara, ingelesa, toponimia, idazmena, irakurmena, behaketa eta antzeko edukiak lantzeko aukera ematen du. Hortik harago, tokian-tokian, ikastetxeak euren proiektuak sortzen joan dira, beharraren ar-

bera. Honako hauek dira abiatzeko proposamen erraz batzuk:

- Urmaelaren txokoa: Berrizko Umerri Eskola Aktiboan, adibidez, urmaelaren txokoa eratu zuten, eta ornogabeei buruzko hainbat liburu dituzte han; leku hori baliatzen dute urmaelaren inguruan egiten diren ekintzen berri emateko.

- Egutegia: Gasteizko Errekabarri eskolan, astero, argazki bat ateratzen zioten urmaelari leku beretik, urtaroz urtaro urmaela nola aldatzen den ikusteko datuak bilduz. Ondoren, egutegi bat egin zuten argazki horiekin.

- Laginketak: ikastetxe gehienek egiten dituzte laginketak; horretarako, gida eta protokolo zehatz bat proposatzen dizkie Aranzadik, higiezia zaintzea oso garrantzitsua baita gizakiok anfibioei gaixotasunik ez transmititzeko

- Harrizko menditxoak: urmaelaren inguruan, harrizko menditxoak egin zituzten ikasleek, anfibioen eta narrastien gordeleku gisa. Anfibio helduak askotan harri azpian edo enbor azpian gordetzen baitira ugaltze garaian, uretan egon beharrean. Aranzadik proposatzen du harriak pilatzea putzuaren inguruan, edo enborrak jartzea inguruetan, anfibioek babeslekua izan dezaten. Aurrez landu daiteke hori ikasleekin, mendixkak non jarriko dituzten erabakita.

- Mindfulness egiteko eremua: normalean urmaelaren eremua esparru lasaia dela kontuan hartuta, leku aproposa izan daiteke erlaxaziorako, eta bada mindfulnessa egiteko espazio gisa erabiltzen duen ikastetxerik, eremu orekatua delako eta naturarekin harremanetan jartzen gaituelako.

arteko zubiak ere eraiki ditu, Aranzadik eta Ingurugelak sustatuta. Alde batetik, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako campusetako Irakasle Eskoletan, zientziaren eta matematikaren didaktikarako erabiltzen ari dira urmaelak, eta sekuentzia didaktiko oso bat garatu dute urmaelei buruz, Sanz Azkuek adierazi duenez, “Unibertsitateko ikasleek ekosistemaren eta gizakia- ren arteko erlazioa aztertu ahal izan dute, eta baita urmaelean dauden espezieen ezagutza ere (biodibertsitatea, ekosistema eta sare trofikoak). Urmaela erabili dute ekosistema baten eredu gisa, eta modu praktikoa, behaketen bidez, hango espezieak identifikatu dituzte ikasleek. Lanketa handia egin dute, eta, gainera, hainbat esperimentu gehitu dituzte; esate baterako, kanpoko espezie bat ekarri dute, eta landare horrek urmaeleko ekosistemari

zer-nolako kalteak eragiten dizkion aztertu dute”. Horrez gain, euren ikerketak egin ahal izateko, sare bat osatu dute hamar ikastetxerekin, unibertsitateek ikerketa lerro baten barruan hainbat jarduera egin ditzaten. Halaber, Bigarren Hezkuntzako Irakaskuntzako master amaierako hainbat lan egin dituzte dagoeneko, Gipuzkoako hainbat ikastetxerekin elkarlanean.

Erronka berria: 'Urmaeltxo'

Eskoletako Urmaelen Sarea egonkortzen doan neurrian, Aranzadiren egitekoa izango da, aurretik, ikastetxeei laborategi natural horiek ahalik eta gehien eta ondoen erabiltzeko baliabide gehiago eskaintzea. Ikasturte honetan, Urmaeltxo proiektua jarri du abian Aranzadik, Ingurugelarekin eta Neikerrekin elkarlanean, eta Aitor Cevidanek prestatuta.

“HHTik DBHra, sareko ikastetxe guztiei metodo zientifikoa aplikatuz egin daitekeen erronka bat aurkeztu diegu, eltxoak ardatz hartuta. Zer egin daiteke eltxoekin? Aitorrek laginketa zientifikoa bat egitea proposatzen du, putzuetan dauden eltxoen larbak lagintzeko. Hala, laginketa nola egin jakiteko, protokolo zehatz bat eman zaie ikastetxeei”. Sanz Azkuek adierazi duenez, oso erraza da larbak eskolara eramatea eta eltxoen larben metamorfosia ikustea. “Behin eltxoa ateratzen denean, lagin hori Neikerre bidaltzea proposatuko diegu, eta Neikerrek erantzun die zer espezie den, eta, era horretan, Euskal Herriko eltxoen mapa osatuko dugu”. Urmaelak modu didaktikoa baliatuz, metodo zientifikoa lantzea eta eltxoak ezagutaraztea da erronka honen helburu bikoitza.

EKARPENAK I

IRAKASLEEN SARBIDEA

Irakasle lanbiderako sarbidearen diagnostikoa (I)

Irakasleen hautaketarako mekanismoak aztertzen ari da Maialen Oiartzun Irastorza EHUko irakaslea 'Irakaslerik onenak kalitateko eskolarako: lanbiderako sarbidearen diagnostikoa eta proposamenak euskal eskola publikorako' izeneko tesian. Laster defendatuko du bere lana, eta horren aurrerapena egin dio **Hik Hasiri**. Eskolako giza baliabideen kudeaketa eraginkorraz ari da Oiartzun.

Zer da irakasle ona izatea? Zerk egiten gaitu irakasle on? Zerk bereizten du irakasle on bat milaka hautagairen artean? Zertan oinarrituta esan dezakegu hautagai bat bestea baino egokiagoa dela? Galdera horiek gidatuta, irakasle lanbiderako sarbidea eztabaidagai izan da azken bi hamarkadetan. Orain, ordea, bigarren maila batera pasa da Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza lege berria dela-eta. Beste gai batzuk lehenetsi dira hezkuntza sistema berriari buruzko eztabaidan. Ezin dugu ahaztu, baina, irakasleak direla hezkuntza sistema ororen motorra. Haiek ematen diotela bizia hezkuntza sistemari. Horiek horrela, hasierako galdera horiek eztabaidaren erdigunera ekarri nahiko nituzke berriro ere, eta irakasleen sarbidea zaintzeko beharraz ohartarazi.

Azken urteotako diskurtsoetan irakasleen prestakuntzaren aldeko joera igarri da. Aipatutako hezkuntza-sistema berriaren aurreproiektuaren zirriborroa da horren adibide



**MAIALEN OIARTZUN
IRASTORZA**
EHUko Donostiako
Hezkuntza Fakultateko
Hezkuntza Zientziak
Saileko irakaslea

argia. Horietan, hala ere, irakasleen portaeraren ikuspegi sinple hau antzeman dut: ez dakitelako ez dute egiten, dakitelako egingo dute. Ikerketa enpirikoak erakutsi du, ordea, errealitatea konplexuagoa dela. Izan ere, jakiteak edo irakaskuntzarako gaitasun zehatz batzuk izateak ez du bermatzen irakasleak espero bezala jardungo duenik. Ezagutzaz gain, egiteko nahia (motibazioa) eta egiteko aukerak (antolaketa eta baliabideak) behar-beharrezkoak dira.

Irakaslearen portaeraren ikuspegi konplexu hori da, hain zuzen ere, nire doktorego tesia ardatzen duena, sinetsita bainago irakasle lanbiderako sarbide-sistema egokiak hiru elementu hauek izan behar dituela kontuan: ezagutza, motibazioa eta jarduteko aukerak. Hasierako galderetara itzulita, beraz; nola lortu dezakegu irakaskuntzan sartzen diren irakasleak ongi prestatuta egotea, jarduteko motibazioa izatea eta ahalik eta modu profesionalean jokatzeko aukerak izatea? Duela hiru urte hasi nintzen galdera horiek



esploratzen eta badirudi iritsi dela ikerlanaren lehenengo ondorioak partekatzeko unea.

Has gaitezen, lehenik eta behin, irakasle lanbiderako sarbidea definitzen. Oro har, sare-publikoko irakasleek egin behar izaten duten hautaketa probarekin (oposizio lehiaketa) lotu izan da, baina sarbidea hori baino gehiago ere bada. Hitzak dioen bezalaxe, sartzeko bidea da sarbidea, hau da, irakaskuntzan sartzeko egin beharreko bidea. Hala, ikerlanean, bide horretan ezartzen diren prozeduren multzo gisa hartu dut sarbidea. Hiru dira bereziki esanguratsuak funtzio publikoko irakasleen kasuan: irakasle kidegoetan sartzeko hautaketa-prozedura, lanpostuen esleipena eta irakasle hasiberrientzako hastapen programak. Azter ditzagun banan-banan.

Hautaketa: irakaskuntza iragartzea

Hautaketa-prozesuaren funtzioa irakasle-gaiaren portaera iragartzea da, hau da, aurreikustea hautagaiak espero dugun moduan jardungo duen ala ez. Iragarpen hori egiteko, lehenik eta behin, iragarri nahi dugun portaera zein den argi izan

behar dugu, hots, ongi identifikatuta eta definituta izan behar dugu zein den egokitza ematen dugun irakaskuntza eta portaera. Behin hori izanik, portaera horretan irakaslearen zer-nolako ezaugarri eragiten duten jakin beharko dugu. Portaera egokiaren eta hori lortzeko ebaluatutako ezaugarrien arteko distantzia hori da, hain zuzen ere, indarrean dagoen hautaketa prozeduraren arazoa.

Arazo hori behin baino gehiagotan salatu du hezkuntza komunitateak azken hamarkadetan zehar. Alde batetik, edukia zaharkituta dagoela esan izan da, gaitegiak eguneratzeko beharra aldarrikatuz. Bestetik, beharrezkotzat jotzen dituzten irakaslearen ezaugarriak ez direla ebaluatzen salatu izan da. Egia bada ere, aldarrikapenak aztertzean, arazoaren ertzak ugaritu egin dira. Izan ere, iritzi eta suposizioetatik haratago, ez dugu argi zein diren irakasleriaren ustezko portaera egokian eragiten duten ezaugarri pertsonalak. Hezkuntza eremuan, gainera, ikerketa gutxi egin da gai horri dagokionean. Jakin badakiguna da, ezaugarri kognitiboez gain, izaerak

eta balioek ere eragiten dutela norbanakoen portaeran. Azken horiek, balioek, interes handia piztu dute komunitate zientifikoan, eta gero eta gehiago dira balioen eta portaeren

Jakiteak edo irakaskuntzarako gaitasun zehatz batzuk izateak ez du bermatzen irakasleak espero bezala jardungo duenik. Ezagutzaz gain, egiteko nahia (motibazioa) eta egiteko aukera (antolaketa eta baliabideak) behar-beharrezkoak dira.

Lanpostuak esleitzeko
prozedurak ez du
ziurtatzen irakaslearen
eta lantokiaren
arteko
bateragarritasuna.
Hautagaia
irakaskuntzan aritzeko
egokia izan daitekeen
arren, gerta daiteke
lantoki horretarako
aproposena ez izatea.
Dela bertako kultura
partekatzen ez
duelako, dela
testuinguruarekiko
atxikimendurik ez
duelako.

arteko harremana aztergai dutenak. Hautaketa prozeduretan ere balioak kontuan hartzen hasi dira, hautagaia-
ren eta ikastetxearen bateragarritasu-
na bermatzeko asmoz.

Lanpostuen esleipena: irakasleak lanpostuetara egokitzea

Lanpostuak esleitzeko prozedura da, zalantzarik gabe, oihartzun gutxien izan duen gaia. Baina, aldi berean, desadostasun handienak sortzen dituen gaia da. Aztertu berri dugun hautaketa-prozesuak irakasle kide-
goan sartzeko beharrezkotzat jotzen diren ezaugarriak ziurtatzea du hel-
buru, baina lanpostuen esleipenak hautagai bakoitza zein lanpostutan arituko den erabakitzea du helburu. Desadostasun handiak sortzen ditu



prozedura horrek, bai kontuan hartu beharreko elementuei dagokienean, bai egiteko moduari dagokionean. Egun lehiaketa bidez egin ohi da, hau da, hautagaiak merezimendu batzuen arabera sailkatzen dira eta sailkapen horren ordenaren arabera, hautagaiak gustukoen duten lan-
postua aukeratu ohi dute. Bigarren prozedura horren arazoa oinarrikoa da, bi uste okerren baitan eraikia baitago.

Alde batetik, irakaslearen aurretiko esperientzia izan ohi da sailka-
penerako irizpide nagusienetako bat. Esperientzia hori, gainera, kualifikatu gabea. Pentsatu izan da esperientziak bere horretan hobe-
kuntza dakarrela, baina ikerketak erakutsi du ez dela horrela. Hala izango balitz, esperientzia handiko irakasle guztiak bikainak izan-
go lirateke. Bestetik, lanpostuen esleipenean, lantokiaren eta lanpos-
tuaren berezitasunik ez da kontuan hartzen, irakasle guztiek testuinguru guztietan berdin jokatu-
ko dutela es-
pero baita. Ideia horretan antzeman daiteke, berriro ere, irakaslearen portaerari buruzko ikuspegi sinplea.


Hala, portaeraren ikuspegi konple-
xuago batetik esan daiteke lanpos-
tuak esleitzeko prozedurak ez duela ziurtatzen irakaslearen eta lantokia-
ren arteko bateragarritasuna. Hauta-
gaia irakaskuntzan aritzeko egokia izan daitekeen arren, gerta daiteke

lantoki horretarako aproposena ez izatea. Dela bertako kultura parteka-
tzen ez duelako, dela testuinguru-
arekiko atxikimendurik ez duelako.

Aipatutakoa kontuan izanik, ira-
kaslearen eta ikastetxearen arteko bateragarritasuna helburu duen ikuspegia garatzen ari da hezkuntza eremuko ikerketan ere. Beste hain-
bat eremutan oso garatuta dagoen ikuspegia den arren, hezkuntzan pixkanaka hazten ari den ikuspe-
gia da giza baliabideen kudeaketa estrategikoarena. Ikuspegi horrek, bateragarritasuna lortzeko asmoz, EAEn erabiltzen dugun alderantziz-
ko logika aplikatzen du. Lehenik, ikastetxearen helburuak, misioa eta egiteko moduak definitzen ditu. Ondoren, lanpostuak misio ho-
rretan pentsatuta diseinatzen ditu eta, azkenik, lanpostu horietarako (misorako) egokiena hautatu ohi du. Modu horretan, irakasleak lanpostuetara egokitzen dira, eta ez lanpostuak irakasleetara (ikusi 1. irudia).

Hastapen programak: irakasle hasi berriaren garapena bermatzea

Aurreko bi prozeduren helburua hautagaien arteko aukeraketa egokia egitea da, hastapen programena, ordea, hautagai horren garapen profesional egokia bermatzea. Hez-
kuntza komunitate zientifikoan asko garatu den ideia den arren, hezkun-



1. irudia: irakasleak lanpostura egokitzea edo lanpostuak irakasleari egokitzea.

tza komunitateak oraindik ez du guztiz barneratu honako ideia hau: irakasleek garapen prozesu iraunkorra dute, eta garapen hori ez da modu automatikoan gertatzen, eginen eginez. Artikulu osoan zehar aipatu dugun jokabidearen ikuspegi konplexuarekin zerikusia du ideia horrek ere, irakaskuntza ere ekintza konplexu gisa hartzen baitu. Askok baietz uste duten arren, irakaskuntza ez baita ekintza erraza, ez sinplea.

Indarrean dagoen sarbide sisteman, kidegora sartzeko hautaketa proba gairatu duten irakasleek urtebeteko praktikaldia izan ohi dute. Horretan, tutore baten laguntza izatea aurreikusten da. Errealitatean, ordea, laguntza hori emateko oztupoak izaten dituzte, hein handi batean, irakasle hasiberriak eta tutoreak ordutegi eta lan-karga bera izaten dutelako. Horrez gain, eredu hori tramite gisa erabili ohi dela salatu da. Hau da, izan beharko lukeen izaera formatibo eta ebaluatibo eza kritikatu izan da. Arazo horiek konpontze aldera, hainbat proposamen egin dira dagoeneko dagokigun tesuinguruan. Esate baterako, oihartzun handia izan duen medikuntzako ereduaren antzeko proposamena (hezkuntzako BAME).

Hala ere, eredu posibleei begira, kontuan hartu behar dugu derri- gorrezko hezkuntzan irakaslearen garapen profesionala ez dagoela oso garatua. Unibertsitatean, esate baterako, ikerketa gehiago egin da bertako irakasleen garapenaren gainean, eta bada garapen akademi-

korako markorik ere. Derrigorrezko hezkuntzan garapen horren mailak zeintzuk diren aztertzeke dago oraindik.

Sarbide ereduaz haratago

Orain arte azaldutakoa laburbilduz, azpimarratu nahiko nuke sarbideaosatzen duten hiru prozedurek (hautaketa, esleipena eta hastapena) oinarrian dituztela arazoak. Irakaskuntzari buruzko uste okarren edo

funtsatu gabeen baitan eraikita baitaude. Horiek egokitze ereduak egon badauden arren, ezin dugu ahaztu lehenik eta behin kultura aldaketa bat eman behar dela. Hortaz jabetuta, prozedurak bere horretan aztertzeaz gain, doktorego tesian prozedura horien inplementazioan eragiten duten sinesmenak eta ikuspegiak ere aztertu ditut. Azterlan horren emaitzak aldizkari honetan bertan aurkeztuko ditut aurrerago.



EKARPENAK II

HEZKUNTZA AKORDIOA

Segregazioari aurre egiteko, matrikulazio orekatuagoa jomuga

Datorren ikasturteko aurrematrikulazio garaia irekitzearekin batera, gizarte kohesioaren mesedetan egindako aldaketak iragarri ditu Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak. Ikasleen onarpen prozesuan aldaketak dakartzan dekretua atera zuen iazko azaroan eta, orain, hainbat neurri praktikara eramango dira, modu progresiboan eta 2 urteko haurrekin hasita. Ikasleen banaketa orekatuagoa egitea da helburua.

Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan ontzen ari diren Hezkuntza Legearen aurretik, iazko apirilean lau alderdi politikoen artean (EAJ, EH Bildu, Elkarrekin-Podemos eta PSE) Hezkuntza Akordioa adostu zuten eta bertan jarduketa-plan bat zehazten zen. Horren barruan, hurrengo urteetan martxan jartzeko 43 neurri aurreikusi ziren, eta Eusko Jaurlaritza hasi da horietako batzuk gauzatzeko.

Jarduketa-planaren barruan, neurri batzuk ekitatearen alde eta segregazioaren aurka ekitekoak dira, besteak beste, bigarren neurria: “Ikastetxeen arteko kohesioa eta eskolatzeko orekatua bermatzen dituen esparru baten barruan ikastetxea askatasunez aukeratzeko aukera konbinatzen duen ikasleen onarpenari buruzko araudia eguneratzea, baremazio-irizpideak birpentsatuz (besteak beste, errenta baxuen pisu

handiagoa, hurbiltasunaren pisua, puntu ‘dinamikoa’ ezabatzea, puntu ‘diskrezionala’ etab.), zenbait neurri betetzen direla egiaztatuz, hala nola ikasle ahulentzako plazak gordetzea, eta egungo zerrendak ezartzeko aukera ematen duten beste mekanismo batzuk sustatuz”.

Testuinguru horretan egin zuen Hezkuntza Sailak ikasleak onartze-ko eta eskolatzeko dekretu berria iazko azaroan eta marko horretan kokatu da 2023-2024 ikasturteko aurrematrikulazioa. Otsailaren 10ean eskaini zuten prentsaurrekoan azaldu zituzten berritasun nagusiak eta aldaketarik esanguratsuenak, denak modu progresiboan eta 2 urteko haurrengandik hasita egingo direla gogoraraziz.

- **Plazen erreserba:** diru publikoarekin sostengatutako ikastetxe guztiek gorde beharko dute Hezkuntza Sailak zehaztutako plaza kopurua ikasle zaurga-

rriak eskolatzeko. Aniztasunaren eta zaurgarritasunaren banaketa orekatua bilatzen du neurri horrek, Euskal Hezkuntza Zerbitzuko ikastetxe guztien artean ikasleak arrazoi sozioekonomikoengatik edo beste mota bateko arrazoiengatik segregatzea saihesteko.

- **Zaurgarritasun indizea:** aurreko neurriarekin erabat lotuta dago, berau lortzeko jarriko den neurri bat baita zaurgarritasun indizearena. Aurrematrikulazioa egiterakoan, familiek euren egoera sozio-ekonomikoari buruzko galdetegi bat bete behar izan dute eta hortik jasotako informazioarekin eta errenta aitopeneko datuekin identifikatuko dira ikasle zaurgarriak. Horrekin, eremu bakoitzeko zaurgarritasun indize erreferentziala zehaztuko da, eta baita ikastetxe bakoitzean



Begoña Pedrosa sailburuordeak, Jokin Bildarratz sailburuak eta Eduardo Ubieta ISEI-IVElko zuzendariak prentsaurrekoa eman zuten otsailaren 10ean matrikulazioko aldaketa nabarmenenak azaltzeko.

“Prozesu berria da eta zalantzak sor ditzake, baina helburua argi daukagu: gizarte hobe egitea”

Jokin Bildarratz
Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza
sailburua

- ikasle zaurgarrientzat gorde beharreko plaza kopurua ere.
- **Zonifikazioa:** ez da aldaketa sakonik egingo, baina bai doikuntzak. Oro har, doikuntzak egin diren lekuetan eragin eremuak zabalagoak dira aniztasunaren banaketa orekatuagoa izateko. Eragin eremu bakoitzean ikastetxe publiko bat dago gutxienez.
- **Eskaintzaren plangintza:** eskola bakoitzean 2 urteko

haurrentzat eskainiko den plaza kopurua zehaztuko da, azpieskaintza eta gaineskaintza saihestea bilatuz.

- **Nahi adina ikastetxetan izena emateko aukera:** familia bakoitzak bere eragin eremuko ikastetxe guztiak hautatu ahal izango ditu seme-alabak eskolatzeko eta euren interesen arabera hurrenkeran lehentzi ditzakete. Hautatutako lehengoa esleitzeko ahalegina

egingo du Hezkuntza Sailak.

- **Hurbiltasuneko eskolatzeta:** ikasleak euren bizilekutik hurbilen dagoen ikastetxera joateari ematen zaio lehentasuna, eta ondorioz, baremazioan horrek du puntuaziorik altuena (7 puntu). Hurbileko eskolatzeta bultzatzea da helburua. Eskaintzen den plaza kopurua baino eskaera handiagoa duten ikastetxeetan aplikatzen da baremoa.



AHALDUNTZE ESKOLA

ELIKADURA OSASUNT SUA

Denetik, baina neurrian

Freskoa, garaikoa eta bertakoa. Jaten dugunak ezaugarri horiek betez gero, geure gorputza modu egokian elikatuko dugu. Oreka bilatzea da gakoa, denetik jatea baina neurrian, eta animalia jatorria duten produktuak murriztea. Ariketa fisikoa egitea ere ezinbestekoa da. D'elikatuz zentroak elikaduran hezten ditu ikasleak.

Modak alde batera utzita eta burua erabiliz elikatu beharko genuke geure burua Idoia Noain Ordiziako D'elikatuz zentroko nutrizionistak dioenez. Gaur egun informazio asko dugula dio, baina horri guztia-ri filtroa jartzea falta zaigula.

Elikadura eta bizi ohitura osasuntsuak izateko beharraz gero eta kontzienteago garela dirudi. Hala al da?

Batzuetan baietz dirudi eta beste batzuetan ezetz. Informazio gehiegi dago eta jendea nahastu egiten da. Askotan gure osasunerako egokienak ez diren teoriak eta modak jarraitzen ditugu. Orain dela gutxi arte gazteen artean oso modan egon da beganoa izatea eta oso ezberdina da beganoa edo barazkijalea izatea filosofia bati jarraituta –kasu horietan, normalean, jendeak informazio asko izaten du– edo moda bat jarraitzeagatik edota pisua galtzeagatik egitea. Azken horrek, epe luzera, osasunean ondorioak izaten ditu. Elikadura txarrak eta ariketa faltak ondorioak dituzte: duela 40 urte zaila zen gaztetxo batek kolesterola altu izatea edo 30 urteko pertsona bati bihotzekoak ematea, baina gero

eta ohikoagoa da. Gero eta gutxiago mugitzen gara eta jende asko, gimnasia ere kotxez joaten da.

Informazio asko dugu baina filtroa falta zaigu, beraz.

Bai. Eta osasuntsu jatea ez da hain zaila. Duela 50 urte askoz ere osasuntsuago jaten zen, eta horretara

bueltatzea baino ez da. Buruarekin jatea, alegia. Denetik jan behar dugu, baina gauza bakoitza bere neurrian. Gaur egun animalia jatorria duten produktu gehiegi jaten dugu.

Elikagaien artean aukera handiagoa da orain.



Bai. Eta prestatutako janari asko dago. Baina ez da ona produktuak deabrutzea. Guri ez zaigu gustatzen produktu onei eta txarrei buruz hitz egitea edo produktu osasuntsuei eta kaltegarriei buruz hitz egitea. Kaltegarritzat jotzen dudan zerbait oso tarteka jaten badut, ez baita kaltegarria izango. Baina arazoa hor dago: gaur egun ez dugu neurrik. Behar ez ditugunak gehiegi jaten ditugu, eta gehiagotan jan beharko genituzkeenak, berriz, gero eta gutxiago. Fruten eta barazkien kasuan, egunero hiru pieza fruta eta bi errazio barazki jan beharko genituzke eta gazteek ez dute hori betetzen. Bestalde, elikaduraren piramidearen puntan daudenak noizbehinka soilik jan beharko genituzke, astean behin, adibidez. Eta zenbat jende gosaltzen du –eta ez umek soilik–, kakao esnea gailatekin? Modu horretan gosaritan soilik piramidearen puntako bi elikagai jaten ari dira. Eta egunean zehar ere maiz sartzen ditugu puntako elikagaiak. Janari freskoa, garaikoa eta bertakoa jan beharko genuke, eta oreka bilatu.

Prestatutako jaki horiek asko ugari dira. Supermerkatuetan apalak beteta egoten dira...

Prestatutako jakiak aipatzean pizzak eta hanburgesak datozkigu burura, baina tomate frijitua, maionesa, gailetak, madalenak... horiek guztiak ere prestatutako jakiak dira. Gaur egungo bizitza estiloak sukaldean aritzeko gero eta denbora gutxiago izatera bultzatzen gaitu eta aukera guztia hain erraz jartzen digutenez, erosoena aukeratzen dugu.

Bestalde: gutxiak dira ogiak, berriz: osasun-irratia. **Bestalde:** osasun-irratia. **Bestalde:** osasun-irratia. **Bestalde:** osasun-irratia.



Egoki elikatzeko irizpideak:

Orokorrean, asko jaten duguna murriztu beharko genuke eta gutxi jaten dugun horretatik, gehiago jan. Ez dago debekatutako janaririk baina neurrian jatea komeni zaigu. Hauek dira Idoia Noianek egoki jateko emandako irizpideak:

- Zerealen taldeko jakiak ugaritu. Jende askok ogia debekatua du gizontzen duelakoan eta otordu guztietan ogi pusketa bat jatea gomendagarria da (integrala bada, hobe). Guztiok behar ditugu karbohidratoak.
- Frutak eta barazkiak egunero jan behar dira. Egunero hiru fruta ale eta bi errazio barazki.
- Lekaleak gero eta gutxiago jaten dira eta oso garrantzitsuak dira. Bertatik proteina lortzen dugu eta astean bitan jaten baditugu, ez dugu zertan animalia proteinarik hartu beharrik. Bigarren plater gisa jan beharko genituzke.
- Fruitu lehorrak.
- Oliba olio.
- Ez hartu frijitu gehiegi behar baino olio gehiago hartuko dugulako. Gehiago erabili plantxa, labea, egosita jan...
- Nahikoa likido hartu.
- Ariketa fisikoa beharrezkoa da.

Eta eskolan nahikoa lantzen al da elikaduraren gaia?

Ez. Nik esango nuke beharbada goizegi lantzen dela, eta ez dut uste umek gehiegi barneratzen dutenik.

Txikitan lantzen da eta gerora ez da jarraipenik izaten?

Hori da. Lehen Hezkuntzako 1. mailan lantzen da elikadura osasuntsua, baina gero ez du jarraipenik izaten. Eta umekin lantzea ongi dago, baina gurasoei ere landu beharko litzateke, ez baitira umeak janaria prestatzen dutenak.

Ikasle taldeak etortzen dira D'elikatuzera. Nola lantzen duzue gaia haiekin?

Elikadura osasuntsuaren gaia lantzeko hainbat unitate didaktiko ditugu. Jolasen bidez egiten dugu, oso bisuala da eta oso erraz ikasten dute. Beste unitate batzuek produktuari begiratzen diote eta eroske-

tari ere garrantzia ematen diogu. Ordizian dugun azoka baliatzen dugu eta bertara joaten dira erosketak egitera.

Elikadura osasuntsuaz hitz egitean, gosariaren garrantzia aipatzen da beti.

Jende askok ez du gosaltzen eta gosaltzen duten gehienek ez dute behar den moduan gosaltzen. Gaueko baraua hausten du gosariak eta une horretan gorputzari energia sartu behar diogu ongi funtziona dezan. Ez soilik ariketa egiteko, baita pentsatzeko ere. Gosaltzen ez dutenek ez dute errendimendu akademiko bera, eta errendimendu fisikoa, asko murrizten da. Sarritan, gainera, ez gosaltzea gizontasunarekin lotzen da. Gosari on batek hiru jaki izan behar ditu: fruta, esnekia eta zerealak. Eta denboraz eta konpainia onean egiten bada, askoz hobe.

GALDEIDAZU

ZEIN DA TUTORETZA SAIOEN FUNTSA BIGARREN HEZKUNTZAN?

Komeni da giza izaeraren ezaugarri batzuk aintzat hartzea galdera horren erantzuna ulertzeko unean eta tutoretzaren gaian sakontzeko garaian.

Taldeko animaliak

Bizitzaren bidean suertatzen zaigun edozein giza taldek funtzio bat betetzen du gure garapenean: pertsonaren garapena edo gaitasunen jorratzea, indartzea, lantzea, loratzea. Taldearen bitartez, bestearekin hartu-emanen eraiki egiten gara, sortuaz, eraldatu egiten gara, tokatzen zaigun horretara egokitze-ko helburuarekin. Gertatutakoari erreparatuta edo erreparatu gabe, etekina ateratzeko aurre programatuak gaude, giza izaeraren moldagarritasun harrigarriaren eskutik.

Giza taldean ikasten dugu zein garen: familian, alaba; lagunartean, laguna; eta eskolako ikasgelan, agian geroago gizartean, hartu dezakegun lekua esperimintatzen dugu. Batetik eta bestetik, hornitzen goaz gure izaera trebeziez eta us-tezko gaitasunez, ondoren datorki-guna hobeto kudeatzeko.

Ibilbide horretan, eragin handia-go edo txikiagoa izango duten pertsona ugariarekin egingo dugu topo.

Ikasgelako taldea erreferente bat bihurtuko da gure bizitzan zehar, eta etxean, familiaren saldan jasotakoak probatzeko eta laboratzeko es-parru bat irudikatuko zaigu. Ere mu-



BERONIKA AZPILLAGA
EHUko Hezkuntza,
Filosofia eta Antropologia
Fakultatean irakaslea, eta
Gipuzkoako Campuseko
Errektoreordetzako
Euskara eta Kultura
zuzendaria



horretan, irakaslea irakatsi beharre-koekin bertaratuko zaigu, eta hona hemen pedagogia klasikoaren gako indartsu bat: irakasten dena, irakatsi nahi dena baino haratago doa; edo beste modu batera esanda, irakas-learen borondatetik kanpo ikasleak ikasi egingo du, irakasleak nahi duena —agian— eta nahi gabeko beste eduki batzuk ere bai (Bisque-rra, 2012).

Ikaslea harremanetarako gaita-sunetan entrenatuko da: entzuten, parte hartzen, behatzen, hausnar-tzen, argudiatzen, isiltzen, agin-tzen, esana egiten, atsegina izaten, defendatzen, gozatzen, txantxa egiten, miresten, bestea balioan jartzen, eskertzen, bestearen lekua hartzen, laguntzen, jolasten, lanki-detza gauzatzen, maitatzen... eta garrantzitsuena, gaitasun bakoitza-ren norainokoak neurtzen, mugak esperimintatuz, akatsak eginez, sariak jasoz eta bide horretan nor eta nortzuk izaten jabetzen.

Irakaskuntza funtzioa

Bigarren Hezkuntzako irakaslea hortxe gerturatuko da ikasgelara, jantzita oso, bere arloetan, bere izaerarekin eta bere harremaneta-rako tresnekin. Irakasteko unean, transmitituko duen bakarra ez dira izango bere arloetako edukiak, ho-rrekin batera, gizartean nola jokatu, lanarekiko ardura, berdinen arteko harremanak eta harreman hierarki-koak nola kudeatu ere landuko du. Kontzeptuez kanpo gertatzen den

horri *irakaskuntza funtzioa* esango zaio, eta bere koordinazioari, tutorretza (Barriga, D., eta Fernández, G., 2002).

Gizartean bizitzeko tresna horien jorraketan, badira dimentsio batzuk bereziki esanguratsuak, legez agertzen zaizkigunak; horietako bat da aniztasunean bizitzeko trebezia.

Aniztasunean bizitzeko irakaskuntza

Aniztasunean bizitzen irakastea eta ikastea metodologiekin josten da, eta edozein tankerako edukiekin landu daiteke. Hona hemen proposamen batzuk (Álvarez Justel, 2017).

- **Irakaskuntza kooperatiboa:** irakasleek, lankidetzan eta laguntza eraginkorra garatzeko, beste profesional batzuekin elkarlana bideratzen dute: irakasgaietako irakasleekin, ikasten laguntzeko irakaslearekin, komunitatearekiko harremanetarako irakaslearekin, orientazioko irakaslearekin...
- **Ikaskuntza kooperatiboa:** ikasleek elkarri laguntzen diote eta ikaskuntza eraginkorra da
- **Gatazken/arazoen konponbide kooperatiboa:** ikasgelako portaera desagokiari heltzeko modu sistematikoa da, ikasgelan guztientzat arau argiak adosten direlarik eta errefortzu positiboak eta negatiboak aplikatzen direlarik gatazkak lankidetzan konpontzeko tekniken bidez.
- **Taldekatze heterogeneoak:** ikasleak talde heterogeneotan taldekatzea baliagarria da desberdintasunak errespetatzeko eta arreta pertsonalizatuaren bidez bazterketa saihesteko.
- **Irakaskuntza eraginkorra:** metodologia hau erabili daiteke irakaskuntzaren jarraipena egiteko, ebaluazioaz eta curriculumaz jabetzeko, banakako eta talde txikiko egokitzapenak ahalbidetzeko, eta Hezkuntza Premia Bereziak dituzten eta ez dituzten ikasleen arteko aldeak murrizteko.
- **Erreferentzia-eremuko siste-**

Tutore izatea ikasleei hazten laguntzea da, orientatzea eta gidatzea, beren onena lor dezaten, eskura dituzten hainbat baliabide eta estrategia erabiliz.

ma: ikasleak eremu komun batean jartzen dira, hau da, bi edo hiru ikasgelatan. Irakaskuntza osoa ematen da eta irakasle talde txiki bat arduratzen da irakaskuntzaz.

- **Ikaskuntza alternatiboko estrategiak:** Ikasteko eta arazoak konpontzeko estrategiak lantzen dira. Kontua ez da ikasteko estrategiak soilik ikastea, baita nola aplikatu ere (erantzukizuna ikaskuntzan).



Gelako giroa irakaslearen harremanetarako eta komunikaziorako trebezien mende dago, eta tutoretzak jasotzen ditu horretarako antolatutako neurri guztiak.

Tutorearen trebetasunak

Bigarren Hezkuntzako irakasle guztiak tutoretzan inplikatu daude. Tutoreak talde-gela berean irakasten duen irakasle-talde osoaren tutoretza dinamizatzen du. Tutore izatea ikasleei hazten laguntzea da, orientatzea eta gidatzea, beren onena lor dezaten, eskura dituzten hainbat baliabide eta estrategia erabiliz (Giner eta Puigardeu, 2008). Tutoreak trebetasun eta estrategia profesionalak eta pertsonalak izan behar ditu. Horretarako:

1. Lider, coach edo gidari izan behar du, ikasleei laguntzeko eta hazten laguntzeko.
2. Komunikatzaile ona izan behar du, sarean lan egin behar du gainerako tutoretza-eragileekin (irakasleak, orientatzaileak, kanpoko zerbitzuak, familiak), eta familien parte-hartzea sustatu eta lagundu behar du.
3. Behatzailea izan behar du, ikasleen beharrak eta arazoak detektatzeko edo ikasleen ahalmenak aurkitzeko.
4. Sortzailea izan behar du eta tresna berriak (teknologia berriak, etab.) bilatzera eta erabiltzera ausartu behar du.
5. Positiboa, erresilientea, enpatikoa, asertiboa, negoziatzailea eta bitartekaria izan behar du.
6. Ikasleak eta gainerako tu-

toretza-eragileak inplikatu, entzun, ulertu eta errespetatu behar ditu.

7. Aniztasunari erantzun behar dio, kohesioa eta harreman-giroa sustatu behar ditu.
8. Gelako eta ikastetxeko giroa zaindu behar du.
9. Aldaketa-eragile izan behar du, ikasteko eta hazteko espazioak eta baldintzak sortuz.
10. Eta bizitza osoan zehar entrenatu eta prestatu behar du. Baina, batez ere, jarrera ona eta sen ona izan behar ditu.

Ikastetxearen funtzioa

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak oinarriko garapen- eta sozializazio-testuingurua dira ikasle nerabeentzat. Jasotzen duten inplikazioetik abiatuta, beren kultura-, adimen- eta arazoiketa-gaitasunak zabaltzeko aukera dute. Ikasle diren aldetik, herritar-rola hartzen dute, eta institutua da biztanleriaren harremanak arautzen espezializatutako erakunde nagusia. Zentroan, berdinekin dituzten harremanak zabaldu eta dibertsifikatu egiten dituzte. Irakasleekin, nerabeek autoritatearekiko harreman-ereduak garatzen dituzte, gurasoei dituztenetik haratago. Azken batean, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak nerabearoko trantsizioaren, hau da, helduarorako urratsaren, zati handi bat gertatzen den agertoki nagusietako bat dira. Horrek erantzukizun objektiboa ematen dio hezkuntza erakundeari prozesu horretan (familia eta beste gizarte erakunde batzuekin batera).

Banakako harremanak, taldeko harremanak eta gelako giroa

Nerabeen hezkuntzan izandako emaitza bikainengatik aukeratutako hainbat ikastetxe aztertu ondoren, honako ondorioa gailentzen da behin eta berriz: garapen fisikoari, kognitiboari eta sozialari dago-kienez, eskolako praktikak ikasleek dituzten desberdintasunetara egokitzearen duten prestutasuna eta gaitasuna da ikastetxe horien lehen ezaugarria.

Ikasleen interesetara hurbiltzean

honako neurriak hartu izan dira:

- Eskolako ordutegia murriztea, ikasleen interes pertsonalak garatzen laguntzeko.
- Eskolako antolamenduan aldaketak egitea, ikasleen eta irakasleen talde txikiak sortzea, ikasleen beharren arabera eskolako erritmoa eta jarduerak artikulatzeko ahalmenak izanik.
- Eta aholkularitza-planak garatzea, ikasle bakoitzak egunero pertsona heldu batekin harremana duela ziurtatzea eta tutoretza harremanak bermatzea entzute prozesuak indartzeko.

Ikastetxe horiek nerabeen garapen sozialerako eta emozionalerako ingurune positiboa sortzearen garrantzia azpimarratzen zuten, eta horra hor tutoretza prozesuen indarra. Horrela, ingurune horiek, nerabeen bizitza kalitatea hobetzeaz gain, errendimendu akademikoan modu positiboan laguntzen zutela bistaratu zuten.

Gelako giroa irakaslearen harremanetarako eta komunikaziorako trebezien mende dago, eta tutoretzak jasotzen ditu horretarako antolatutako neurri guztiak. Irakasle guztiek eratzen duten harreman kalitatea barne, eta familiarekin elkarlana uztartuz, tutorea izango da arduradun nagusia.

Bibliografia

- ADRIAN J. E. y RANGEL: *Aprendizaje y Desarrollo de la Personalidad* (SAP001).
- ÁLVAREZ JUSTEL, J.: "Bigarren hezkuntzako tutoretza XXI. mendeko hezkuntza", libk. 35 zk. 2 (2017), 65-90. 77. Tutoretza orientazioan <http://dx.doi.org/10.6018/j/298521>
- BARRIGA, D., & FERNÁNDEZ, G.: *Estrategias Docentes para un Aprendizaje significativo*, McGraw-Hill, México, 2002.
- BISQUERRA, R.: *Orientación, tutoría y educación emocional*. Síntesis, Madrid, 2012.
- GINER, T., eta PUIGARDEU, O.: *La tutoría y el tutor. Estrategias para su práctica*, Horsori, Bartzelona, 2008.

ARGITALPENAK



EGUNERO BEHAR GENUEN

Imanol Murua Uribe

ELKAR

Egunero-ren kronika da liburua, emergentziazko egunkari baten bizialdi laburraren kronika, alegia. 2003ko otsailaren 21ean sortu zen —*Euskaldunon Egunkaria* itxi eta biharamunean— eta urte hartako ekainaren 20an argitaratu zen azkenengo aldiz —*Berria* plazaratu bezperan—. Zubi haren inguruabarrak biltzen ditu liburuak.



A, AITARENA

Isabel Martins – Bernardo Carvalho

KALANDRAKA - PAMIELA

Aita berokia, Hegaitazkina, Aita esekitokia, Aita zaindaria... Jolaserako gonbidapena egiten du liburuak. Elkar ezagutzeko eta orri bakoitza igarotzean aitaren eta seme-alaben arteko maitasun harremana sendotzeko gonbidapena. Aitei omenaldia egiten die, eskuzabaltasunez eta samurtasunez.



KAPIBARAK

Alfredo Soderguit

TXALAPARTA

Animalia bitxi, handi eta iletsu haiek iritsi ziren egunean, inork ez zuen zalantzarik egin: Ez! Ez zen haientzako lekurik. Baina kapibarek ezin zuten euren etxera itzuli ehiza garaia hasia zelako. Horrela, kapibarek eta oiloek elkarrekin bizi behar izan zuten. Elkarbizitzari buruzko liburu goxoa. Garazi Arrulak egin du itzulpena.



ARITMETIKA LEHEN HEZKUNTZAKO IRAKASLEENTZAT

Aitzol Lasa Oiarbide

UEU

Haurren zentzumen numerikoaren garapena azaltzen da, besoetako umea denetik Lehen Hezkuntzaren amaierara arte. Zenbaki arrunten eraikuntza eta horien aritmetika zenbait ikuspuntutatik aztertzen da, besteak beste, antropologikoa, kognitiboa eta matematikoa.



KALEKO ARTISTA

Irati Bediaga

IBAIZABAL

Paulek kalean ezagutu duen mimo bati artista sentiarazten lagundu nahi dio, bizitzak eskaintzen dituen mila koloretara zabaltzen. Helburu horrekin, artistari opariak eskainiko dizkio eta hainbat abenturatan murgilduko da. Modu horretan bere buruari ere lagunduko dio, barruko beldurrei aurre egiteko.



ELSA ETA PARADISUA

Mariasun Landa – Elena Odriozola

EREIN

Elsak bost urte zituenean entzun zuen lehen aldiz paradisu hitza. Gustatu egin zitzaion. Bost segundo baino ez zituen behar izan zer esan nahi zuen galdetzeko. Hala ere, inork ez zion erantzunik eman... Uda batean, baina, dama bitxi bat agertu zen eta hark paradisuari buruz kontatu ziona entzun zuen.

PROPOSAMENA

Basondo, animalien babes-gunea

Mehatxaturiko animaliak, haurrak kontzientziatzeko

Berreskuratze zentroetatik datozen animalia mehatxatuak bizi dira Kortezubiko Basondo babes-gunean. Euskal Herrian bizi izan diren hegazti eta basanimalia nagusiak ikus daitezke bertan eta baita hainbat animalia exotiko ere. Helburu pedagogiko argia dauka babes-guneak: ekosistema zaintzearen garrantzia transmititzen diete haurrei.

Basondo ez da zoologiko bat. Animalia asko baditu ere ikusgai, hala nola, gure inguruko basanimalia nagusi guztiak, nahiz hainbat espezie exotiko, oinarrian duen filosofia guztiz bestelakoa da. Helburu pedagogikoa duen animalien babes-gunea da Kortezubiko Basondo auzoko aterpetxea. Lau eremutatik ekarritako animaliak ikus daitezke bertan: batetik, errekupeazio zentroetatik ekarritako mehatxaturiko animaliak bizi dira babes-zentroan; bigarrenik, legez kanpo ekarritako animalia exotikoak daude; hirugarrenik, espezie zehatz batzuk errekupeatzeko Europa mailako programetako animaliak daude; eta azkenik, baserriko animaliak, edo etxekotutako animaliak daude, garai batean basak izandakoak, hala nola, oiloak, ardiak, zerriak, basurdeak... Azken horiek izan ezik, Basondon bizi diren gainerrakoko animalia guztiek atzerazekinak diren kalteak dituzte; hegaztiak, adibidez, lesioak dituzte edo tiroak



jaso dituzte, eta euren kabuz ezingo lukete naturan biziraun. “Gure azken helburua gisa honetako zentrorik ez egotea izango litzateke, jendearen kontzientziation eragin dugun seinale eta animaliek merezi duten tratua ematen ikasi dugun seinale”, adierazi du Roberto Uriarte arduradunak. Animaliak zaindu eta sentsibilizazio

zein ingurumen-hezkuntza lanak egiten dituen babes-eremua da, beraz, Basondo.

Basondoko sei hektareatan Euskal Herrian bizi izan diren hegazti eta basanimalia nagusiak ikus daitezke, hala nola, hontza, urubia, arranoa, putrea, orkatza, oreina, adarzabala, basurdea, azkonarra, basakatua,




Katamotza ikus daiteke Basondon.

azeria, eta baita gaur egun gure basoetan desagertuta dauden hainbat espezieetakoak ere, katamotza, otsoa eta bisontea, esate baterako. Orain dela gutxi arte bi bisonte izan dituzte, baina une honetan bakarra dago Basondon, berau Europako erre-kuperazio programa baten baitan hazia izan da ondoren Basondora ekartzeko. “Gure historiaren parte da bisontea, eta hona ekarri genuen bisitariak jakin dezaten animalia honek ingurune hauetan guk adina denbora daramala, eta gizakia izan zela akabatu zuena”.

Basondon bizi den animalia bakoitzak bere historia du eta hala azaltzen diete monitoreek bisitariari, sentsibiliza daitezen. Azeria, adibidez, uzkur egoten da izkina batean. Izan ere, pertsona batek, jaioberritan basoan ikusi, ebatsi, eta etxekotu egin zuen, eta maskota gisa ez zuela gehiago nahi eta berriro mendian utzi zuen. Alabaina ordurako instinturik gabe eta bizirauteko ezinean zegoen azeria. Basozainek errekupeatu eta iritsi da Basondora, sena galduta. Antzekoa da otso ahizpen historia, edo azkonarrarena edo katamotzarena ere. Gure basoetan katamotz boreala bizi izan zen, “piztitzar” moduan hartzen zituzten eta ordaindu giten

zuten katamotzak akabatzeagatik, espezie hori gure lurretatik desagertzearaino. “Guk mezu argia ematen diegu bisitariari: basoan animalia bat ikusiz gero, ez ukitu. Kume bat ikusiz gero, ez hartu inoiz. Normalean ama gertu izango du, eta guk borondate onez hartzen badugu ere, ukitu orduko, ukazioa jasango du, eta okerrago: etxekotuz gero, euren biziraupena arriskuan jarriko dugu. Beraz, basoan aurkitzen ditugun animaliak ez ukitzearen garrantzia azaltzen diegu umei”, nabarmendu du Uriartek.

Espezie autoktonoez gain, urruneko lurraldeetakoak nahiz exotikoak diren animaliak ere badaude Basondon. Australiako ualabi kanguruak, adibidez, inguruko jatetxe batean zeuzkaten bisitarien gozamenerako ikusgai. “Ezin da gisa honetako animaliarik eduki maskota gisa, eta ez zeudenez arauz eta baldintza onetan, gure zentzura ekarri zituzten”. Gisa honetako animalia exotikoak erakustean mezu argia eman nahi die Basondok ikasleei: “Oso modan egonagatik, sekula ez erosi espezie exotiko bateko animaliarik maskota gisa. Maskota bat nahi baldin badugu, hartu katu bat, etxeetan ez baitira baldintzak ematen gisako animaliek biziraun dezaten”. Hala,



Webgunea: www.basondo.com

48315 Kortezubi

Telf: 94 625 44 36

info@basondo.com

Ordutegia:

(Irailak 1-Ekainak 30): astelehene-tik ostiralera 11:00 - 14:00.

Prezioak: 9€ helduentzat eta 5€ umeentzat.

Bisita gidatuak (beti aurretiazko erreserbarekin): taldea hogeia pertsona baino gehiagokoa baldin bada, gidaria dohainik izango da eta gutxiagokoa bada 35€ ordaindu beharko da taldeko.

ualabiez gain, dortokak, eta hainbat narrasti dituzte Basondon. Hudoen kasuan, adibidez, jendeak maskota gisa hartu eta zein usain duten ohartzean edo erasokorrak direla ikustean, aske utzi dituzte basoan, ekosistemaren mehatxu.

23 urte hezten

Animaliak nola zaindu eta, batez ere, ekosistema babesteko zer ez den egin behar azaltzeaz gain, bertako faunaren eta floraren gaineko azalpenak ematen dituzte monitoreak, baita geologiari buruzko azalpenak ere, bisitarien adin-tarte bakoitzari eta aurretiaz duten ezagutzari egokituta. Santimamiñeko kobaren ondoan egonik, labar arteaz ere mintzatzen dira eta museo txiki bat ere badaukate Urdaibaiko padurako bizitzaren eta hegazti migratzaileen berri azaltzetzeko. Erakusmahaietan, animalien oinatzen zein aztarnei buruzko informazioa aurkitzen da. Basondon 23 urte daramatzate hezten.

ATZEKO ATETIK



IRAKASLE IDEALAREN BILA

GARAZI RUIZ DE SABANDO

GASTEIZKO MENDEBALDEA BHI-KO
DBH 4. MAILAKO IKASLEA

Gaur egun, ikasleok egunean sei-zazpi ordu pasatzen ditugu ikastetxe barruan, geldirik, arbelari begira, parez pare dugun irakaslea esaten ari denari arreta handirik jarri gabe, edo okerragoa dena, batere arretarik jarri gabe. Irakasleek ikasleonek emaitzan zein jarreraren duten erantzukizuna oso handia da. Izan ere, irakasle bati esker, hainbeste gorroto zenuen ikasgai hura gustukoa izatera pasatu daiteke, edo kontrara. Ikasleok beti izan dugu irakasle idealaren ideia bat, eta ezaugarri askotan ados ez bagaude ere, beste askotan gauza bera desio dugu.

Irakasleek gure zailtasunak kontuan hartzea gustatzen zaigu. Irakasgai guztien artean, ikasle bakoitzak bere kuttunena du, baina baita zailtasun handienak ekartzen dizkiona ere. Izan ere, ikasle guztiok ez ditugu maila eta gaitasun berberak. Baina, hala ere, modu berean ebaluatzen gaituzte.

Ahalegintzeko gogoa pizten duten irakasleak nahi ditugu, haien laguntza dugula sentiarazten digutenak.

Beti entzun dugu “gainditu ez baduzu, nahikoa ikasi ez duzulako izan da”. Egia da, batzuetan, nagikeriak irabazten digula eta gutxi saiatzen garela; baina, beste batzuetan, irakasleak ez dira kontzientegure etxeko logelan zenbat orduz egon garen Frantziako Iraultzako urteak ikasten edota disoluzio baten molartasuna kalkulaten. Azkenean zer, eta azterketan gorriz biribildutako emaitza bostetik beherakoa izateko, eta gainera, irakasleak zugandik gehiago espero zuela esateko. Asko ikasi nahiz ez, animo ematea behar dugu, babes.

Bestelako irakasteko moduak dituzten irakasleak nahi ditugu. Milaka ikasleren eskuetatik pasatu diren liburu ulergaitzak irakurtzeaz eta ariketak etengabe egiteaz gain, azalpen eraginkorrek behar ditugu, erraz ulertzekoak. Ez dut esango erraza denik, baina bai haien lanaren parte dela.

Praktika bultzatzen duten irakasleak nahi ditugu. Bestela, dena da teoria, dena da ikasi eta idatzi. Eta praktika, noizko? Argi dago teoria

ere eman behar dela, baina praktikak uste baino gehiago laguntzen digu. Oso garrantzitsua da irakasleek ikasleoi alderdi praktiko hori ezagutaraztea.

Ikasleak babesten dituzten irakasleak nahi ditugu. Zenbat alditan entzun dudan iruzkin matxista, homofobo zein transfobo bat... eta zein gutxitan, ordea, eman duen irakasleak hura eteteko erantzun bat, nahiz eta irakaslearen arduretako bat izan. Jarrera horien aurrean, irakasle gutxiak jokatzeko du arduraz; gehienetan ikasleok egin behar izaten dugu. Eta, hori gutxi balitz bezala, ikaslearen artean neurritz gaitzekoak geu gara, iruzkin batengatik *horrela* jartzeagatik. Gure ustez, gaitzeko horiei buruzko formakuntzak ezinbestekoak dira irakaslearen artean, erasoaren aurrean erantzun eraginkorrek emateko eta, horrela, berriz gerta ez daitezen.

Badakigu ohiturak aldatzea ez dela batere erraza, baina argi dago zerbait egin beharra dagoela. Beraz, saiatu gaitzeko ikastetxeak desio dugun espazio bihurtzen.

*Jaso etxean bertan zientziari eta
teknologiari buruz jakin nahi
duzun guztia*

elhuyar
aldizkaria



HARPIDETU!

hik hasi
JARDUNALDIA

LEHEN HEZKUNTZAKO JARDUNALDIA

HOBETZEKO PREST!

Apirilaren 22an Donostian



Jordi Mateu

Nolako Lehen Hezkuntza
behar dugu gaur egun?



Karmele Perez Lizarralde

Irakasleen prestakuntza
gogoetatsua, hezkuntza
hobetzeko giltza



Ikastetxe baten esperientzia

Prestakuntza gogoetatsua praktikan

Izen-ematea zabalik martxoaren 1etik apirilaren 14ra arte

www.hikhasi.eus